

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Joko politiko berria dakarren
hiruki hirukoitza **RAMON SOLA > 11**

KOADERNOA

Pentsatu eta idazten
direnak **ITZEA URKIZU ARSUAGA > 21**

2019ko abenduaren 7a | XIII. urtea • 649. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«EZ ZAIZKIT LAUDORIOAK GUSTATZEN»

HERRIAREN PILOTARI KUTUNA, PILOTA ALDATU ZUENA ASKOREN USTEZ. JUAN MARTINEZ DE IRUJO DESEROSO SENTITZEN DA BERE DOHAINEZ HITZ EGITERAKOAN. HIRU URTE ETA ERDI DARAMATZA FRONTOITIK KANPO, BIHOTZEKO ARAZO BAT MEDIO, APARTATU EGIN BEHAR IZAN ZUELAKO. BIZITZA LASAIA DARAMA ORAIN, PILOTA BIZI DU, BAINA BESTE KANTOI BATZUETATIK. **> 22** Idoia ZABALETA | FOKU



Sidama, Etiopian estatu federatu propioa nahi duen herria 04

Elefantea, oihaneko herrien lagunik handiena 08

Inmersiones, artista hasi berrien topaketa Gasteizen 12

Durangoko Azoka 15


Sare sozialak irakasle 18

Sarean 19

Elkarrizketa: Juan Martinez de Irujo 22

In fraganti Giovanni Cuocci 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Joxe Azurmendiren ekarpenak ospatzeko kongresua

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Mapak eta poesia

11 **Ramon Sola:** Joko politiko berria dakarren hiruki hirukoitza

16 **EXPRAI**

17 **Oihane Larretxea de la Granja:** Meri gehiago eta Mercedes gutxiago

17 **Koldo Sagasti:** Galduko ez bada

20 **Beñat Gaztelumendi:** Azokak

21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Pentsatu eta idazten direnak

30 **Amaia Urrejola:** Sexu segurua balio bat da



{ datorrena } Iñaki Soto

Joxe Azurmendiren ekarpenak ospatzeko kongresua

Nire ustez, Joxe Azurmendi euskal pentsamenduaren titana da. Ziur asko gure herriak eman duen pentsalaririk emankorrena da. Horrexegatik, datorren astean Donostian egingo den “Joxe Azurmendi: euskal pentsamenduaren ur-jauzia” garrantzitsua da. Berari buruzko katedra bat sortzea eta Haritz Azurmendi ikertzailea egiten ari den lana garrantzitsuak diren bezala. Ospatu behar dugun zerbait da.

Jakina, Joxe Azurmendiren lana eta bere ondarea ezin dira maila pertsonal hutsean aztertu, aro historiko jakin bateko ekimen komun zabal baten parte baitira: frankismoan eta ondoren Euskal Herria salbatzeko, berpizteko eta berreraikitze saiakera kolektiboaren parte dira, hain zuzen ere. Hor kokatzen dira Arantzazu; euskarren berreskuratzea eta garapena; kooperatibak; mundu zabaleko eztabaidak eta gure herriko ekintzak, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua, alegia; baita gure instituzionalizazio prozesua ere, unibertsitatea barne.

Kongresuan esango ditugunak ez dauzkatzat argi. Norberak bereak esango ditu, noski. Joxerenak ahal bezain beste esaten ahaleginduko gara, zintzoak bagara. Ondoko auzi hauei bueltaka nabil ni egunotan.

ESKOLASTIKAREN AZKEN MOHIKANOAK

Pentsatzeko molde hauek, are eta gaitasun hauek ere, ez dira errepikatuko. Belaunaldien eta ikasketa sistemaren aldaketa dago muinean. Iraultza kulturala hor eman da, etengabe. Ez soilik teknologikoa, baizik eta sakonagoa. Adibidez, honezkero ez da sekula Azurmendiren garaian ikasten zen bezala ikasiko. Horrek, derrigor, Joxek guri irakatsi zigun bezala irakasteko aukera deuseztatzen du.

Ezagutza ozeaniko, ordenatu, eskolastiko, memoristikoa eta sistemiko hori ez da berriz emango. Ezagutza hori guztia ikuspuntu kritiko batetik aztertze gaitasunak

ere moteldu egin dira. Belaunaldi honekin galduko da hau dena. Horren ondorioak aurreikustea ona litzateke, antropologiaren eta pedagogiaren ikuspuntutik, agian.

PENTSATZEKO SISTEMA BAT, SARRI SISTEMAREN KONTRA

Nire ustez, beste gauza guztien gainetik, Azurmendik pentsamenduaren historian eta euskal gatazketan oinarritzen zen sistema bat eman digu. Ondo pentsatzeko sistema bat, ez moralaren zentzuan –hau beste eztabaida bat da, eta kongresuan ateratzea gustatuko litzaidake–, baizik eta epistemologiaren zentzuan. Ondo pentsatzearen alternatiba, nola ez, gaizki pentsatzea, gaizki arrazoitzea da.

Etikaren eta politikaren auziari helduz, ETaren kontra (eta alde) pentsatzeko eta egoteko erak zeuden, eta dau-

Azurmendiren lana eta bere ondarea ekimen komun zabal baten parte dira: frankismoan eta ondoren Euskal Herria salbatzeko, berpizteko eta berreraikitze saiakera kolektiboaren parte, hain zuzen

de. Joxeren pentsamenduarekiko jaiera berriak ikusita, horri buruz eztabaidatuko dugula aurreikus daiteke. Oraingo heldu zintzoak aseeginak dira.

PUTZU BATEAN BAINU EDER BAT HARTU, ETA SEGI AURRERA

«Nire ideiak norbaitek irakurtzen ditu, eta bere ideiak martxan jartzen dira», azaltzen zuen Azurmendik. Bere ideien emankortasuna itzela da. Ur-jauzi horren norabidea eta sakontasuna Donostian ikusiko dira.

Euskal Herriak aurrean dituen erronkak ere itzelak dira. Krisi zahar eta berrien aurrean, herria eta herritarrak buruan eta bihotzean dituen ekimen komunitarioaren aldekoen konjurazioa behar da. •

AUTODETERMINAZIOA

Sidama herriak estatu federatu propio bat izatearen alde egin du Etiopian

Etiopia hegoaldeko Sidama herriak eskualde autonomo bilakatzearen alde egin zuen iragan azaroaren 20ko erreferendumean, gehiengo ikaragarriarekin. Botoa eman zutenen %98k baietzaren alde egin zuten eta parte hartzea ere izugarri altua izan zen, botoa eman ahal zuten ia guztiek hartu baitzuten parte (%99,86). Parte hartzea altua izango zela agerian geratu zen goizeko seietan hauteslekuak ireki eta sekulako ilarak sortu zirenean.

Sidamako 2,3 milioi hautesle-en artean, estatu federatu propio bihurtzearen aukakoak ez ziren %2ra ere iritsi. Erreferendumak, horrenbestez, Etiopia-

 **POLITIKA /** Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Sidama herriak Etiopian bere estatu federatu propioa izan nahi duela adierazi berri du erreferendum bitartez, erabateko gehiengoz gainera. Konstituzioak Etiopiako etnia guztiei eskubide hori onartzen badie ere, bozketara iristeko bidea ez da baketsua izan. Eta autonomiak Etiopian izango duen eragina ere ez dago batere garbi.

ko hamargarren estatu federala sortzeko bidea ireki du.

Afrikan bigarren estatu populatuena da Etiopia, 100 milioi biztanle baino gehiagorekin. Federalismo etnikoan oinarritutako banaketa admi-

ilara luzeak izan ziren lehenengo orduetatik Sidamako erreferendumean botoa emateko. Parte hartzea %99,86koa izan zen.
Michael TEWELDE | AFP

nistratiboa du, bederatzi estatu edo eskualde federatutan banatua. Orain artean, Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdeko parte izan da Sidama; estatu federatu horretan, 57 talde etniko daude.

Azaroko erreferenduma arazo handirik gabe egin ahal izan zen, toki batzuetan sortutako ilarak kenduta. Horrek emaitzari balio are handiagoa eman dio.

Abiy Ahmed Etiopiako lehen ministroen arabera, erreferenduma ondo egin ahal izateak erakutsi du «gure arazoak hautetsontzien bitartez konpontzeko dugun ahalmena. Posible egin dugu prozesu demokratikoa garaile ateratzea».

Erreferendumera iristeko prozesua, baina, ez da erraza izan. Eta etorkizunean are arazo gehiago sor daitezke bozketaren ondorioz. Izan ere, hainbat adituren arabera, emaitza ikusita, Etiopiako beste herri batzuek ere autonomia eska-



BOUGAINVILLE, ESTATU BERRI BAT OZEANO PAZIFIKOAN?



dezakete, eta, ondorioz, herrialdeko barne mugak berregitea beharrezko bilaka daiteke.

Hiru milioi biztanle baino gehiago dituen Sidamak urteak daramatza Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdetik irten nahian. Hori bai, gogo autonomista azken urtean berpiztu da bereziki, Abiy Ahmed boterera iritsi eta erreforma programari ekitean.

Eskualde federatu berriak zergak kobratu eta eskolak, polizia eta osasun zerbitzuak antolatzeko ahalmena izango du. Baina arazorik ez da faltako. Eskualdea sortzeko egutegia, aurrekontu federala eta eskualdeko ondasunen partekatzea, adibidez, gatazka iturri izango direla aurreikusten da.

PRESIDENTE ERREFORMISTA

Abiy Ahmed 2018ko apirilean boterera iritsi zenetik, erreforma ugari bultzatu ditu Etiopian. Eritrearekin sinatutako bake hitzarmena izan da bere lorpenik ezagunena, hogeitau urte baino gehiago iraun dituen gatazkari amaiera eman baitio. Kanpoko gatazketan ere egin ditu bitartekari lanak, Sudanen kasu. Bakearen Nobel saria jaso du lorpen horiei esker.

Barne politikan ere hainbat erreforma jarri ditu martxan. Hori bai, Ahmned boterera iritsi zenetik errepresioa jaitsi bada ere, giza eskubideen aldeko erakundeek oraindik jazarpenak gertatzen direla salatzen dute. Aldi berean, komunitateen arteko gatazkak sortu dira. Eta estatu federatu berriaren sorrerak areagotu egin ditzake.

Etiopiako Konstituzioak airtortu egiten du estatu federatu berri bat sortzeko erreferenduma egiteko talde etniko guztiek duten eskubidea. Eskaera egiten dutenetik, urtebeteko epean egiteko eskubidea dute. Si-

Ozeano Pazifikokoan dagoen Bougainville uhartediak autonomia baino haratago jarri du bere helburua. Azaroaren 16an erreferenduma martxan jarri zuten bertan independentzia nahi duten edo Papua Ginea Berriko parte izaten jarraitu nahi duten erabakitzeko. Zehazki, independentziaren edo autonomia sendotuaren artean hautatu behar zuten 200.000 hautesle baino gehiagok. Urte luzez abian izan diren negoziazioak eta matxinada odoltsu bat behar izan dira erreferendumera iristeko.

Bougainville uhartediko Buka irla txikian mila pertsonak itxaroten zuten botoa emateko irrikatan azaroaren 16an. «Hain zoriontsua naiz!», nabarmendu zuen Olitha Mikelak, jantzi koloretsuz jantzita. «Musikariek joko dute, dantza egin eta botoa emango dut», azaldu zuen, ezin alaiago, 54 urteko emakumeak. Belarrez eta lorez egindako girlandak soinean, emakume zein gizonek osatutako abesbatzak kaleetan zehar kantuan ari ziren, bandera independentistak eskuan.

Hamaika txalupa txiki porturatu ziren Bukan erreferendumaren lehen egunean, beste irla txikiagoetatik botoa emateko irrikaz heldutako herritarrez lepo. Tinputzen, Bukako hegoaldeko kostako herrixka batzuetan, bertakoek behiak eta zerriak ere hil zituzten.

Bi aste iraungo dituen bozketaren emaitzak ez dira abenduaren erdialdera arte jakingo. 650 nazioarteko behatzaile arituko dira lanean gobernu eta erakunde ugaritako ahaldu gisa. Inkestarik egin ez denez, agertoki guztiak dira posible, nahiz eta independentziaren aldekoen garaipena aurreikusten den. Australiako Lowy institutuaren arabera,

independentziaren aldeko jarrera nagusi da oso eta herritarren %75aren babesa lor dezake. Eskualdearen nortasun etniko sendoaren, hamar urteko gatazkak utzitako etsaitasunaren eta eredu autonomikoaren porrotaren ondorio da independentisten arrakasta.

Bada, esperotakoa gertatu eta independentziaren aldeko jarrera nagusitzen bada, gero Papua Ginea Berriko Parlamentuak berretsi egin beharko du emaitza. Agintariak herrialdeko beste etnia batzuek bide bera hartuko duten beldur dira. Baina independentziari ezetza garaile ateratzen bada, beldur dira borroka zaharretara itzuliko ote den Bougainville eta bake prozesua ezerezean geratuko ote den. Izan ere, erreferendumak hamar urteko gatazka armatua gainditzeko aukera eman du. 1998an su etena eta 2001ean bake akordioa lortu aurretik, gatazkak 20.000 hildako utzi zituen.

Bougainville eskualdeko presidentek, John Momisek, hautesleei pazientzia izateko eskatu die. Herri kontsulta prozesu luze bateko etapa bat dela azpimarratu du: «Ezin ditugu gauzak azkartu. Emaitza ona lortzeko behar den denbora hartu behar dugu». Bere ustez, prozesua burura eramateko bost urte inguru beharko dituzte.

Iraganeko indarkeriak indarkeria, erreferenduma giro lasaian prestatu zen. Bi aldeetako borrokalari ohiek hainbat zeremoniatan ere parte hartu zuten, geziak apurtuz adiskidetze ikur gisa. «Tamalez ez dira maiz entzuten armak utzi, adiskidetu eta bakea nahi duen jendearen istorioak», nabarmendu zuen erreferendumaren antolatzaile lanetan aritu den Mauricio Claudiok.


Bougainvillek 1768an uhartedira iritsi zen nabigatzaile frantses baten izenetik hartu zuen izena, Louis-Antoine de Bougainville. Gaur egun eskualdeko aurrekontuaren zatirik handiena Papua Ginea Berriko Gobernuaren esku dago. Uhartediko baliabide naturalen jabetza ere jokoan dago erreferenduma dela eta.

Hegoaldeko hemisferioko herri pobreenetariko bat da Bougainville, baina aberastasun handiak ditu, batez ere kobrea. Estatu independente bihurtzen bada, Ozeano Pazifikoko potentzien helburu bilaka daiteke uhartedia.

Hain zuzen ere, aldarrikapen independentista 1989an sortu zen, meatze baten inguruko gatazkak piztuta. Panguna meategiak okupatutako lurren jabe indigenak matxinatu egin ziren bertatik ateratako etekinen banaketa justuago eskatzeko eta indusketek ingurugiroan egindako kalteak salatzeko. Armadak enpresaren alde esku hartu zuen. Garai hartan, Rio Tinto enpresa anglo-australiarraren esku zegoen meatzea. Sortutako gatazkaren ondorioz, 20.000 pertsona hil ziren, Bougainvilleko biztanleriaren %10. Eta beste 15.000 lagunek euren etxeak utzi eta errefuxiatu guneetan bizitzera joan behar izan zuten, Salomon uharteetara.

Pazifikoko urre eta kobre meatoki aberatsenak ditu Bougainvillek. Horregatik, inguruko potentziek jomuga izan dute, Australiak eta Txinak batez ere. Eta Bougainville independente batek egitasmo horiek berpiztu ditzake. Hain zuzen ere, Txinak, munduko beste toki askotan egin duen moduan, dirulaguntzak eskaini dizkio uhartediari azpiegiturak eraiki eta baliabide naturalak erauzteko. Txina Pazifikoko herrietan “Perlazko Lepokoa” izena hartu duen portu eta azpiegitura kate erraldoia sortzen ari da, merkataritza bideak menpean hartzeko asmoz.

Pangunako meategia Papua Ginea Berriko barne produktu gordinaren %40 izatera iritsi zen gatazkaren aurretik. Bertako erreserbek 52.443 milioi euroko balioa dutela uste da. Gatazka hasi zenean meategiaren ustiaketa bertan behera gelditu zen eta Rio Tinto ez da jada akziodun handiena. Baina, egun, hainbat enpresak ustiaketa berriro martxan jartzeko asmoa erakutsi dute. Gobernu autonomoak oraindik ez du bere iritzia eman eta erreferendumaren emaitza ezagutu ondoren erabakiko du zer egin.



damaren adibideari jarraituz, beste herri askok helburu bera adierazi dezakete orain. Gutxienez, beste 80 talde etnikok eska dezakete bide bera jarraitzea. Etiopia hegoaldeko hamar taldek, adibidez, abiatu dute jada autonomia prozesua.

HAWASSA HIRIBURUA, ARAZO ITURRI
Sidama estatu federalesko lurraldearen barruan Hawassa hiria dago, gaur egun Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdeko hiriburua. Autonomiarako bidean, bertan bizi diren gutxiengoak matxinatzeko arriskua dago adituen ustez, baztertuak izango diren beldur baitira. Kontuan izan behar da, gainera, Sidama herriak ezagutu duela dagoeneko indarkeria Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdea uzteko bidean:

dozenaka hildako izan ziren iragan uztailan eta Addis Ababak eskualdea Polizia Federalaren eta Armadaren kontrolpean jarri zuen.

«Eskualde berria ez da gaue-tik egunera sortuko, erreferenduma prozesuaren urrats garrantzitsua bada ere», uste du William Davison International Crisis Group (ICG) analisi taldeko ikertzaileak. Hawassaren

etorkizuneko estatusa zehaztea arazo zaila izango dela aurreikusten du. Izan ere, Sidamako herritarrek sortuko den estatu berriko hiriburua bihurtu nahi dute uneotan Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdeko hiriburua dena. Sinatutako hitzarmen baten arabera, datozen bi legealdietan, bakoitza bost urtekoa, hirian geratuko da egun-

Herritarrek bozkatzeko zain ilara egiten, azaroaren 20ko erreferendumean.
Michael TEWELDE | AFP

Sidamaren adibideari jarraituz, beste herri askok helburu bera adierazi dezakete orain. Etiopia hegoaldeko hamar taldek abiatu dituzte dagoeneko antzeko autonomia prozesuak

Hawassa izango da Sidamako hiriburua. Baina hiria Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdeko hiriburua ere bada, eta ez da baztertzen bertako gutxiengoak matxinatzea

go Hegoaldeko Nazioen, Nazionalitateen eta Herrien Eskualdeko Gobernua. Baina gatazka edozein unetan berpiztu daiteke.

Davisoren iritziz, Sidamako autonomiak «ezin ditu inolaz ere kaltetu sidama etniako ki-deak ez diren biztanleak edo haien negozioak, ez orain ez prozesuaren inongo unetan». Gainera, ikertzaileak nabarmendu du prozesuak ez duela bat egiten Abiy Ahmeden agendarekin, presidenteak boterea zentralizatzeko asmoa erakutsi baitu. Hala ere, Davisonek uste du erreferenduma lehen ministroak bultzatutako erreformen eta esparru politikoaren irekieraren ondorio logikoa dela. «Eta autonomia etnikoen aldeko babes garrantzitsua, batez ere elite politikoen artean».



Autonomiara bidean sortuko diren arazoaren konponbidea baketsua den edo ez arreta handiz jarraitu beharko da, beste herrien eskaeren aurrekari izan daitekeelako Sidama. «Erreferenduma lortu arte prezio altua ordaindu genuen, hildako eta zauritu ugariarekin», aitortu zuen Cherinet Deguyek botoa eman aurretik. «Baina orain zirrara izugarria sentitzen dugu eta giroa oso baketsua da».

Hasiera batean, Abiy Ahmed lehen ministroak ez zuen onartu 2018ko uztailean egin-dako erreferendum eskaera. Sidamako herritarrek, orduan, aldebakarreko sezesio prozesua abiatzeko prest agertu ziren, azken unean atzera egin bazuten ere. Haserre, gazteak kalera atera ziren eta segurtasun indarren errepresio gogorra jasan zuten. Etnien arteko



indarkeria ere piztu zen. Gutxienez 53 pertsona hil ziren.

Desalegn Mesa Sidamako Askapenerako Mugimenduko bozeramaleak adierazi duenez,

Hawassan bizi diren gutxiengoen kideak ez dira mehatxaturik sentitu behar estatu federatu berria sortzeko prozesuagatik. Baina denak ez daude

Gazte bat
erreferendumean
lortutako garaipena
ospatzen, Sidamako
banderarekin.
Michael TEWELDE | AFP

lasai. «Beldurrez bizi gara. Erreferendumaren ostean gauzak aldatuko diren beldur gara, eta ez onerako», onartu du Tesfayek, sidama etniakoa ez den Hawassako biztanleak. «Sidamako estatua sortzen bada, sidama etniakoak ez garenon kontrako bazterketa instituzionala sortuko den beldur naiz».

Oban Metho aktibista ere ezkor da. «Kaltea eginda dago, Konstituzioa esaldi honekin hasten baita: 'Gu, Etiopiako nazioak, nazionalitateak eta herriak'». Etiopia desegin eta Jugoslavia berri bat bilakatuko ote den beldur da. Bere ustez, 1995ko Konstituzioa aldatu egin behar da, «banaketa eskaerak ez betikotzeko». Bitartean, Abiy Ahmed lehen ministroa gainontzeko etnien asmo autonomistak baretzen saiatzen ari da eta pazientzia eskatu die.

ELEFANTEEKIN BIZI ETA LAN EGIN

Oihaneko herrien lagunik handiena:
bizirautea kooperazio kontua denean


📁 **ATZERRIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Birmania, Malaysia eta Indiako mendialtu eta koioihan itxi eta ia zeharkazinetan, milaka urtez, gizakiak elefanteekin egur lanetan jardun dira, jendea eta ondasunak (kontrabandoan sarri) alde batetik bestera mugitzen, oiha-naren babespean beti. Jacob Shell geografoaren “Giants of the Monsoon Forest” liburu zoragarriak elefanteen herrialde misteriotsuotara bidaiatzera gonbidatzen gaitu, kreatura izugarri inteligenteeon bizitzak esploratzera. Eta bertan, zinez, irakurleak bilatuko dituen per-lak txundigarriak dira.

Elefanteen eta gizakien arteko harremana historiaurretik dator. Egun, Asiako elefanteak kontinentearen hegoaldeko montzoi-oihanetan bizi dira, elkarrengandik landa eremu handiek eta hiriek banatutako “uharteetan”. Bitxia da, baina. Lurreko bigarren ugaztun handiena diren Asiako elefanteon atzeko-hagin edo molarrek erakusten dutenez, oiha-nak ez ziren beren gustuko habitat naturalak. Hostoak baino belarra mastekatzeko diseinatuak baitaude elefanteok. Eta horrek iradokitzen du, espezie bezala, Siriatic Txinako mendebalderainoko belardi eta eremu zabaletan eboluzionatu zuela Asiako elefanteak. Aldiz, Asiako inperio eta erreinu handiak sortu eta garatzean emandako populazioaren eta nekazaritzaren hazkundearen ondorioz, belardietan aterpe segururik gabe geratu zen, eta, ondorioz, oiha-netara mugitu behar izan zuen ezinbestean.

Asiako elefanteekin lehen harremana jorratu zuten gizakiek, *mahout* (hindi hizkuntzako hitza) edo egungo ele-

Asiako elefantea kreatura oso inteligentea, errukiorra eta ikaragarri boteretsua da. Gurearen pareko bizi itxaropena izateaz gain, harreman txundigarria jorratu du gizakiokin: elkar ulertuz eta elkarrekin lan eginez. Elefante langileok sufritzen dutela? Bai. Baina, agian, kooperazio mota hori lagungarria izan da bai elefanteentzat baita gizakientzat ere mundu moderno honetan bizirauteko.



fantezainen arbasoak zirenak, antzeko historia izan zuten. Oihanetara jo behar izan zuten belardien eremu zabalen kontrolaren jabe egin ziren inperioen kontrako gerretan galtzaile izan zirenean. Gerrak galdu zituzten gizakiek eta elefanteek habitat latz eta gogor horretan elkar topo egin zute-nean, hein batean, kooperazioan oinarritutako harreman bat eraiki beste alternatibarik ez zuten izan bizirauteko.

Egun, Asiako elefante guztien heren bat inguru *mahout*-ekin diharduten elefante langileak dira, hau da, jendearekin harreman oso estuan bizi diren elefanteak. Sarri etxekotutako elefanteak direla pentsatzen da, baina, beren inteligentziari, indarrari eta ugalketa moduari esker, nolabait, *mahout*-ekin parekidea den harremanean bizi direla ere esan daiteke, egur lanetan, garraioan eta emergentzia lanetan elkarren laguntzaile.

AUTONOMIA ETA BIZI KALITATEA

Jacob Shellen ikuspuntutik, elefante-gizakia harremana positiboa da bi espezieentzat. Onartzen du elefante kumeak harrapatu eta bere senditik banatuz hasten dela prozesua, eta hori oso ankerra gerta daitekeela. Elefanteek ofizioa ikasteko prozesuan zuhaitzei kateatuta pasa beharra duten denbora kooperazioa baino esklabotza izan daitekeela. Baina, hala ere, nabarmentzen du autonomia eta bizi kalitate mailan elefanteon bizitzak ez duela hirietan bizi eta erlijio jaialdietan erabiltzen dituzten elefanteenekin edo zooetan bizi direnekin zerikusirik.

Oihanetako elefanteok denboraren laurdena pasatzen dute lanean eta, gainontzeko denboran, harat-honat dabil-

tza, “libre”, elikatzen eta bere ahaide basekin harremanetan, sarritan harreman sexualetan.

Besteak beste, oihanean harat-honat ibiltzen uzten dituzte izugarrizko janari kopurua behar dutelako eta soilik ordu luzez bazka biltzen utziz bete ditzaketelako beren beharrak. Goizean *mahout*-ak joango zaizkie bila eta bainua eta igurtziak oparituko dizkiete, elefanteok zinez dibertituz. Asko esker-tzen dituzten keinuok.

BAKAR ETA ERREPIKAEZIN

Manhout-ek badakite elefante bakoitza bakarra eta errepikaezina dela, komunikazio sakon eta konplexua garatu behar dutela elefante bakoitzarekin. Izan ere, txakurrak ez bezala, elefanteak ez dira hazten giza emozioei erantzun edo lan zehatzak egiteko. Aitzitik, eboluzioak gaitu ditu ahalmen horietarako, inteligentzia, erruki eta soziabilitaterako. Eboluzioak gizakiok horretarako gaitu gaituen bezala. Eta kointzidentzia horrek ahalbidetu du hain ezberdinak diren bi espezieok horrelako lotura estuak izatea.

Badira gizakiak erakutsi gabe tresnak erabiltzen dakiten elefanteak, elefante basa izanik lanerako elefanteokin batzeko aukera librea izan eta hori erabaki dutenak. Beste elefanteak hiltzen dituzten elefanteak ere badira. Gerrarako erabili direnak ere bai, K.a. 218. urtean Hanibalek Alpeak zeharkatuz Italiaraino eramane zituen 37 gerra-elefante haiek bezalakoak. Bigarren Mundu Gerran, Japoniako eta AEBetako tropen arteko borroketan ere erabili ziztuzten, eta, inguru hartako gerrilla ezberdinek, Myanmaroko Katxin eskualdeko independentistek adibidez, armak garraiatzeko erabili izan dituzte.



Eskuinean, Asiako elefante bat oihanean. Goian, «mahout» bat elefantea lagun 2004ko tsunamiatik ondorengo emergentzia lanetan parte hartzen.
AFP

Elefanteon eta elefantezainon arteko harremanak markadetan zehar luza daitezke. Elefantea gaztea denean, eme ala ar izan, *mahout*-arekin jartzen dute elkarlanean. Eta gizakiekin lan egiteko haizak ez diren arren, elefanteok enborrak jaso eta garraiatu ditzakete, luizietan harrapatutako jendea erreskatatzeko dute (2004. urteko Indiako Ozeanoko tsunamian bezala), erreketan kateaturiko zuhaitz eroriak kentzen dituzte eta oihan

itxi-itxietan barneratzen dira bidaiari eta merkantziak bizkarrean hartuta.

ETORKIZUNA, ZALANTZAN

Finean, Asiako elefanteen eta animaliekin bizi eta lan egiten duten herrien arteko interakzioak aztertuz gero, elefanteon inteligentziaren inguruko bestelako ikuspegi hartzen da. Are, mundu naturalaren eboluzioaren eta gizakion borroka politikoen arteko ustekabeko harreman ederra ikusten da.

«Gerra-elefanteak» ere badira: Hanibalek Alpeak zeharkatuz Italiara eramane zituen, Bigarren Mundu Gerran parte hartu zuten eta arma garraiorako erabili izan dituzte gerrillek

Asiako elefanteen eta animaliekin bizi eta lan egiten duten herrien arteko interakzioak, besteak beste, elefanteon inteligentziaren inguruko bestelako ikuspegi bat eskaintzen du

Galdera, baina, hor geratzen da: Zergatik egin du aurrera Asiako elefanteekin lan egiteko tradizioak eta beren ahaide diren Afrikako elefanteekin ez da berdina gertatu?

Harremana bi espezieentzat onuragarria izan daitekeela onartu arren, justifika al daiteke bietariko bat denbora batez kateatu izan beharra? Mende-baldarrontzat animaliekiko basakeria eta naturaren giza dominazio izan daiteke hori. Edonola ere, lanerako elefante basak harrapatzearen praktika hori gutxitzen doa, oihan eremuak urritzen eta azpiegiturak hobetuz doazen heinean. Hori dela eta, lanerako elefanteon etorkizuna ez da egun batera argia. Emergentzietarako mantenduko dituzte? Agian. Eta nola ziurtatuko da elefanteok bizirautea hobekien eza-gutu eta beraien ahaide kontsideratutako *mahout*-ik gabe?



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Mapak eta poesia

Mapez eta mapekin ari da Iñigo Astiz bere azken lanean, «Analfabetoa» izenekoa (Susa, 2019); munda, errealitatea eta aktualitatea ulertu nahian. Entzun dut poeta esaten poesia bide paregabea dela ulertzen ez dituen gauzez mintzatzeko, eta, horregatik, gaineratu du, prosan baino egiatiago dira hitzak poesian, baina ez argiago.


Europa Mendebaldeko maparik zaharrena du hizketagai poema batean; bertan dio haitzulo garaiko lurraldearen mapa eta marraketan, leku bat deskribatzearekin batera bizitza nolakoa zen azaldu nahi zutela gure arbasoek. Oro har, poema liburuak orainaldiaren lurraldea hartzen du hizketagai, poesiak maparen funtzioa betetzen duelarik edo poesiak mapa bat –edo gehiago– marrazten duelarik. Maparen linea eta irudien testualizazio ariketa bat da, mapak ohiko argibide funtzioa galduz: mapa ez da “zu hemen zaude” ziurtasuna eskaintzen dizun euskarria izango eta mapak ez du helmuga batera

iristeko biderik laburrena erakutsiko. Arkitekturaren eta filosofiaren nahasduraren toki ez jakin horretatik, poesia bide ez-jarraitua, erritmo geldoan eta praktikotasunik gabeko lokarrietan aritzeko proposamena da beti.

Ezinezkoa egin zait arkitekturarekin lotura saihestea, mapa edo lurraldearen irudikapena hain denez arkitekturarako gaia. Maparen poetikotasuna gutxitan izaten da eztaba-dagai, funtzionaltasunaren atzamarretan galtzen direlako mapak. Baina poesiaren antzera, mapa errealitatearen begirada baten emaitza da, benetakotasunetik urruti dagoena. Bizi garen testuinguruaren esentzia zirriboratu, gerturatu, korapilatu nahi dituzte biek. Ariketa espekulati- boak dira errealitatea abiapuntu eta helduleku dutenak, berorren ulerpe- nerako saiakera edo ahalegin gisa har- tu behar direnak, konplexutasun han- diko gaien azalpen partzialak. Poesian hitzak aukeratzen dira; mapan, ele- mentu grafikoak. Eta paperean itsa- tsitako hitzek zein lineek errealitatea-

ren transformazioarekin amets egi- ten dute.

Leku batek milioika mapa ditu, zen- batezinak dira. Eta leku baten erreali- tateaz jabetzeko mapa bat baino gehiago behar dira, existitzen ez di- ren errealitateenak ere bai. Zer pentsa eman dit mapez ari den “Helbiderik gabeko lekuak” izenburuko Astizen poemak, zeinak dioen badirela lekuak koordinadarik ezagutzen ez dutenak, baina, izendatzeko gaitasun hutsaga- tik, izan badirela. Norbaiten ahotan entzundako lekuak dira horiek, seku- la bisitatu gabekoak baina gure uler- menean existitzen direnak, “aho-bela- rri” interakzioan. Errealitatearekiko fidel- tasuna galdu eta norbanakoak testuinguruaz irudikatu duen ideia maparen material bilakatzean, erre- alitatearekin zeharkatzen diren oroi- tzapenak eta irudimenaren mapak er- diesten dira. Baliteke poesiak zein mapak ustez ezaguna zaigunaren errebelaziorako giltza izateko, erreali- tatetik aldendu, fikzioan eta memo- rian nahasi eta buelta egin behar iza- tea, betiere, ulertzeko zaila den horretaz aritzeko. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Joko politiko berria dakarren hiruki hirukoitza

Emeki-emeki egosten ari zen menua mahai gainean jarri digu asteak. Indar metaketa berria jaio da azkenik Euskal Autonomia Erkidegoan. Bi plater, biak akordio berdina oinarri: estatusa eta aurrekontuak; EAJ-PSE-Elkarrekin Podemos. Kozinatutakoaren itxura berria da; elikagaiak, ez. Lehenari erreparatzen badiogu, jaio aurretik ito da izena, "Estatus Berria" ezin zaiolako deitu adituen batzordetik atera den proposamenari; zaharrak berri idatzi dituzte ordezkari politikoen oinordekoek. Aurrekontuei buruz, Elkarrekin Ahal Duguren alde aurreko gogoak ezerezean utzi du negoziatio mahaia; zerikusi gutxi izan du joan den urtean EH Bilduk eta Lakuak izan zuten norgehiagoka ideologiko mamitsu, publiko, luze eta estuarekin.

Ariman (estatusa) zein gorputzean (aurrekontuak) bat eginda, botere hiruki berria osatu da Gasteizko Legebiltzarrean. Hurrengo hauteskundeetan ostean gobernu tripartitu bilakatzeko hazia ote? Ez da hiruki alde-kidea, jakina, EAJren neurria dezente luzeagoa baita. Baina hirukia da. Eta ez da bakarra, argazki orokorrean jada hiruki hirukoitza marraztua baita: Iruñea izan zen lehenik, ia aritmetikaren kasualitatez; Madril etorri da bigarrenik, Sanchez-Iglesiasen arteko akordiora azkar baino azkarrago batu baita EAJ, oraingoan bere bozak merke-merke salduz; eta Gasteiz da hirugarrena, beste bi akordioek lagunduta baina bere ezaugarri propioekin.

Indar metaketa hiru kasuetan berdina izanda, bitxia da aurkari oso ezberdinei egiten diela aurre. Estatu mailan zein Nafarroan, eskuinaren aurrean justifikatzen da tripartitu berria; izan ere, ez Estatuko *trifachito*-ak ez eta Nafarroako *cuatrifachito*-ak ere (Navarra Sumako hiru alderdiak gehi Vox) ez dute 2019an gehiengorik lortu. EAEn, aldiz, hirukia ez da osatu eskuinaren aurka, ezker independentista boteregune-
kian toki eragindako joko politikoak ez du inolako antzik izango. Eskuin espainiarrak gauza asko, ia den-dena, baldintzatzeko aukera izango du Estatuan, boteregune gehienetan sakonki sustraiturik dagoen heinean; zerbait gutxiago egin ahal izango du Nafarroan, azken hamarkadotako erregimena desegiten ari den neurrian; eta ezer gutxi EAEn, ezerean pareko gelditu baita PP eta ezerez absolutuan Cs eta Vox. EH Bilduri dagokionez, oraindik kontraesankorragoa da agertokia, indar gehien duen lurraldean tripartitu berriak eragiteko gaitasuna nabarmen murrizten baitio, eta Estatuan zein Iruñean, aldiz, bere laguntza beharko baitu, bai behintzat inbestidurez haratago aurrekontuak eta gainerako legeak aurrera atera nahi baditu. •

kanpo uzteko baizik, horixe baita EAJk nabarmen markatzen duen lehentasuna. Ikusi besterik ez da jada hoge urte pasa direla Sabin Etxeak ezker abertzalearekin azken akordio sakonak baimendu zituenetik (Ibarretxeren garaiko Legebiltzarreko akordioa, Udalbiltzaren sorrera...) eta, tarte horretan, batera eta bestera itunak egin dituela, Jose Maria Aznar eta Pablo Iglesiasekin kasu. Iragan legealdian eta honen hasieran behin eta berriz planteatu zuen EH Bilduk EAJ zein Elkarrekin Ahal Dugurekin gehiengo handiko herri akordioa egingarria zela, baina hain egingarria ez zirudiena eta indar gutxiago metatzen duena aukeratu dute jeltzaleek: PSE eta Elkarrekin Ahal Dugurekin bat egitea, alegia.

Hirukia hiru kasuetan berdina da, beraz, baina hirukitik kanpo dagoena, guztiz ezberdina. Ondorioz, to-

EAEn, Nafarroan eta Estatuan berdina da EAJ/Geroa Bai-PSE/PSN/PSOE-Elkarrekin Ahal Dugu/Unidas Podemos hirukia, baina hirukitik kanpo dena guztiz ezberdina da

INMERSIONES

Hego Euskal Herriko artista hasi berriak ezagutarazteko topagunearen XII. edizioa

 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Ohikoa ez den ekimena da Inmersiones. Izan ere, Euskal Herrian egiten den mota horretako jarduera bakarra da. Dagoeneko ibilbide emankorra egin du eta pilatutako eskarmentua baliatuta, XII. edizio erakargarria egin berri du.

Artisten topagunea da Gasteizko Inmersiones, proiektu eta informazio trukaketa, «artearen espazio publikoa eguneratzeko modu gisa». Sortu zeneko helburu berbera du: inguruko produkzio artistiko hasi berrian murgildu eta hura ezagutaraztea, ahal den neurrian erakusketa baliatzea saihestuz. Artista hasi berriak biltzen ditu, beraz, gehienak

Inmersiones, inguruko artista hasi berriak bistaratzeko topagunea. XII. edizioa komisariatu duen Redil kolektiboko kide Iñaki Larrimberekin eta Ruben Diaz de Corcuerekin hitz egin dugu, Gasteizko topagunearen historiaz, orainaz eta, nola ez, artearen etorkizunaz, horixe izan baita aurtengo edizioko gaia.

gazteak, etorkizunari begirako topagunea baita.

Azaroaren 28an aurkeztu zuten aurtengo edizioa Gasteizko ZAS Kultur Espazioan. Topaketaren katalogoa, kaze-ta formatuan, sarean dago eskuragarri nahi duen orok kontsultatzeko moduan eta,

egitaraua ez ezik, parte hartzaileen hainbat artikulua ere biltzen ditu.

ARTEAREN ETORKIZUNA

Edizio honetaz eta aurrekoez ere hitz egin du GAUR8k Redil Kolektiboko kide Iñaki Larrimbe eta Ruben Diaz de Corcua-

Francisco Javier San Martinen hitzaldia, ZAS Kultur Espazioan. Jorge SALVADOR

rarekin, arte politikoko kolektibo horrek koordinatu edo komisariatu baitu aurtengo Inmersiones. Aurtun, azken urteetan bezala, gai baten ingurukoa izan da topaketa, eta haren goiburua «Etorkizuneko artea. Artearen etorkizuna». Horren gaineko hainbat galdera egin diote beren buruari: etorkizun hurbilean arteak eragin politiko handiagoa izango duen, artea bizitzan guztiz urtuko den, irudikapenetik alde egingo duen, hutsal-keriaren aurrean amore eman- go duen, artearen paradigma batzuk agortu eta beste batzuk sortuko diren, azken teknologiek horretan guztian esku hartuko duten... «Zentzu kronologikoan, orainaldiko artistok iraganeko artearen etorkizuna zein etorkizuneko artearen iragana gara, baldin artearentzat etorkizunik bada-la erakusten bada, ez baitago batere garbi».

Hiru egun jardueraz betetze-ko egitarau potoloa zuten, aurkezpeneren egunean bertan hasita. Frantzisko Javier San Martinek hitzaldi bat egin zuen, 1927an, Futurismoak hoge- i urtetsu bete zituenean, Marinettik testu autobiografiko bati eman zion izenburu bera erabilita: «Caffeina d'Europa».

Lehiaketetan eta kongresuan parte hartu zutenak lau deialdiren bidez hautatu zituzten. Hartara, ostiralean Nerea Lekuonak irabazi zuen argazki lehiaketaren erakusketa zabaldu zuten, baita «Educaciones» izeneko ere, Anabel Quincoces artistak zenbait ikastetxetan egin duen sortze eta hezkuntza lanaren emaitza ikusgai jarri zuena. Halaber, Jorge Salvador eta Paula Estevezi ilustrazio lehiaketaren irabazle saria eman zieten.



Larunbatean, Ortzai antzokian, Inmersiones kongresua izan zen. Alde batetik, hautatutakoek, artistak zein arte ikertzaileak, beren proiektuak azaldu zituzten jendaurrean. Bestetik, hautatutako “ekintza arte” proposamenak edo artistek beren gorputzekin parte hartu behar duten artelanen proposamenak aurkeztu zituzten.

Azkenik, aurtengo berritasuna arte-fikzioko kontakizun ilustrazioen lehiaketa izan da. Urte hasieran, besteak beste Susana Viñolo irabazlearen istorioa jasoko duen liburu bat argitaratuko dute.

Kalitate handiko proposamenak jaso dituztela diote Larrimbek eta Diaz de Corcuera: adimen artifizialen gaurko artearen gaineko txosten kritiko bat; arteak zibernetikaren lengoaiaren aurkako jarreraren alde egin beharra; neuro artearen gaineko txosten bat; film futuristetan edo zientzia fikzio-koetan agertzen diren monumentuen artxibo edo bilduma...

Kongresuaren ondoren, urtero bezala, bazkaria egin zuten parte hartzaileek, eta, arratsaldean, tertulia batekin eman zioten amaiera aurtengo edizioari.

HAMABI EDIZIO, HAMABI ERRONKA

Hamabi urteko ibilbide eman korra egin dute, baina zailtasunez betea. Proiektua Amari-ka asanbladak sortu zuen. Artisten asanblada hori 2002an Amari-ka gela itxi ondoren sortu zen. Hiru areto kudeatzen hasi zen: Amari-ka gela, berriz ireki zutena, Probintzia Artxi-boko gela eta Kultura Etxea. Kasu bitxia, paregabea izan zen, artisten asanblada batek ordu arte sekula ez baitzuen gune instituzionalik kudeatu. Kultura diputatua artistei, eragileei deitzen hasi omen zen.



Ruben Diaz de Corcuera
eta Iñaki Larrimbe,
Inmersiones
kongresuan.
Jorge SALVADOR

«Hala egiten zuten lehen; orain, ezta hori ere», diote Larrimbek eta Diaz de Corcuera. Garai hartako Kultura diputatuak asanblada batean esan zien artistek nahi zutena egingo zutela, eta asanbladak gelak kudeatu nahi zituela erantzun zioten. Amari-ka gelan egin zuten lehenengo Inmersiones, 2008an, Arabako Foru Aldundiak finantzatzen zuen pintura, eskultura eta grabatu lehiaketa guztiz aldatuta. Lan asko

egina, traba asko gaindituta, ezohiko lehiaketa izan zen, eta gutxi gorabehera formatu hari eutsi diote funtsean gaur arte: jendaurreko arte proiektuen edo ikerketen aurkezpenak.

Inmersiones hasi zen urtea azpimarratu dute Redil kolektiboko kideek, krisi ekonomikoa hasi zen urtea, hain zuzen. Euren erakusketaren formatua krisian zegoen kontzientzia zuten, erakusketa eta katalogoa egiteak dirutza eskatzen

baitu, eta, proiektuaren helburua artistak ikusaraztea zenez, beste formatua askoz baliagarriagoa da. Izan ere, Inmersiones oso proiektu iraunkorra da. Amari-ka gela itxi zutenean ere, bizirik jarraitu zuen. Ez dute erakusketa gunerik behar izan; esan bezala, ahal den neurrian erakusketaz baliatzen ez den proiektua baita.

Bigarren edizioa Izaskun Alvarez Gainzak antolatu zuen, aurreko urtean parte hartu zuen artista batek. Izan ere, proiektuaren ezohiko beste ezaugarri bat da komisariotza txandakatzea. Ez dute proiektuaz jabetzeko asmorik. Proiektuak sortu eta beste artista batzuek haiez ardura dai-tezen nahiago dute. Horregatik, parte hartzen dutenek hurrengo edizioetan komisariatzeko edo koordinazio lane-tan laguntzeko aukera dute. Hori da Diaz de Corcuera-
ren kasua ere, bigarren edizioan artista hautatu gisa parte har-

ABENDUAN, GAZTE KLIK KLAZ ZAS ESPAZIOAN

ZAS Kultur Espazioan jarduera asko egiten dituzte. Horren adibide, Inmersiones XII amaitu bezain laster hurrengo jarduera prestatzen hasi ziren, Gazte Klik Klak 2019 argazki eta bideo digitalen lehiaketa. 14 eta 25 urte bitarteko gazteentzako ekimena da, aurtengo edizioa Jorge Salvador ZASeko kideak komisariatua. Ostegunean zabaldu zuten irabazleen lanen erakusketa, eta horien obra jasoko duen katalogo bat ere argitaratuko dute.

Gazte Klik Klak lehiaketak arte sorkuntza eta lanen zabalkundea bultzatzen du. Inmersiones bezala, lehiaketa honen gaia ere aldatzen joaten da urtetik urtera.

Erakusketatarako hautatutako lanen artetik, lauk 300 euroko saria jasoko dute argazki, bideo edo kultur materialean. Halaber, datorren martxotik aurrera Jorge Salvadorrek komisariatuko duen Tetrapack 2020 erakusketan parte hartuko dute.



tu ondoren, hirugarrena komi-sariatu baitzuen 2010ean.

Laugarren edizioan gai ba-ten inguruan antolatzea era-baki zuten. Urte berean, Ara-bako Foru Aldundiak Amerika asanbladarekin zuen harrema-na bukatutzat jo zuen. Edizio hura Gasteizko Gobernuaren laguntzen bidez finantzatu zu-ten, eta aurrerantzean horiei eta beste batzuei esker, betiere lehiaketa bidez, aurrera ater-ate Inmersiones. Penaz gogo-ratu dute garai hura, hiru kul-tura proiektu garrantzitsu bai-tzeuden: Artium, KREA eta Amerika; gainera, abian zego-en Montehermoso kulturune-a, «eta dena pikutara bidali zuten, artearen munduak Gas-teizen momenturik oneneta-koa bizi zuen momentuan».

Hurrengo edizioaren goibu-rua esanguratsua izan zen: “Pakean utzi artea”. Instituzio-en bertako artistekiko ezaxo-lak Amerika asanblada ia desa-gertzea eragin zuen, baina lagun batzuek Inmersiones proiektuari eustea erabakita, elkarte bat eratu zuten hu-rrengo urtean, Inmersiones izenekoa, hain zuzen. Gune instituzionaletatik alde egin-da, Gasteizko Alde Zaharreko lokaletan mugitu ziren, azken aldion Ortzai antzokian eta

ZAS Kultur Espazioan, beren jardunerako egokiagoak, proiektuak ez baitu erakuske-ta ardatz.

REDIL KOLEKTIBOA

Aurtengo Inmersiones komi-sariatu duen Redil kolektiboak gizartean eragiteko asmoa du. Artistak ez ezik, edonor pen-tsarazi nahi dute, gizartea as-tindu. Diaz de Corcuerak eta Larribek beren artelanak egiten dituzte, baina Redil ko-lektiboak arte politikoko ildo-a du eta bere batian egiten di-tuzten obrak, artetik egindako iruzkin bat egitera bideratuta baino areago, eragitera daude bideratuta. Artetik mundu po-litikoan eraginkorrak izan nahi dute.

Kolektiboaren lehen jardue-ra Montehermoso kulturune-ko “Babesik gabe” erakusketa

«Zentzu kronologikoan, orainaldiko artistok iraganeko artearen etorkizuna zein etorkizuneko artearen iragana gara, baldin artearentzat etorkizunik badela erakusten bada»

Aurtengo berritasuna arte-fikzioko kontakizun ilustrazioen lehiaketa izan da. Laster, besteak beste Susana Viñolo irabazlearen istorioa jasoko duen liburu bat argitaratuko dute

Artisten kongresua, Ortzai antzokian. Eskuinean, argazki lehiaketaren erakusketa ZAS Kultur Espazioan. JorgeSALVADOR

izan zen, artisten eta gobernu-z kanpoko erakundeen arteko lankidetzat programa baten ba-rruan. Orduan aurreikusita ze-go-en Siriako gerratik errefu-xiatu uholdea iristea, eta proiektu polita zeritzoten. «Baina ez oso atsegina», diote atoaan. Bai Udalarekin, bai go-bernuz kanpoko erakundeekin tirabirak izan zituzten. Euren ustez, beren egitekoa ez bai-tzen gobernu kanpoko era-kundeek transmititu nahi zue-na ilustratzea. Erakusketan, esate baterako, bisitariak Ruandako sarraskien irudie-tan *selfie*-ak egin zitzaizketen gune bat zegoen. Errefuxia-tuen argazkiak jarri beharre-an, Mediterranea zeharkatze-ko ahaleginean hiltzen zirenen irudiak jartzen zituz-ten, hondartzetan itota ager-tzen zirenenak. Argazkiak era-biltzeko eskubideak erosi zituzten, eta, fotomuntatze teknikak erabiliz, irudira sar-tzen ziren, buzo zuri bat jan-tzita tragedia haiei soraio be-gira agertzeko. «Baina hor ezer egin gabe agertzen zarete», esaten omen zieten, eta eurek erantzun: «Jakina, jendeak egi-ten duena».

Ildo horretatik doa Redil ko-lektiboak egiten duen arte po-litiko, haserretzen duena,

molestatzen duena, «batez ere jarrera hartzera behartzen duelako, jendeari pentsarazten diolako». Erakusketa hartan, aukera bat eskaintzen zuten: «Zer egingo dut? Ondo egongo da? Nik lagundu nahi dut, bai-na nola agertuko naiz triskan-tza horren erdian?».

“Buldatorio” izeneko maki-na ere egin zuten orduan, bul-dak saltzen zituen tramanku-lua, alegia, nahi zuenak errefuxiatuei gertatzen zi-tzaienarekin zerikusirik ez izateko bulda eros zezan. Za-ma kritiko eta ironiko handi-ko piezak erabiltzen dituzte beren salaketa lanerako.

ETORKIZUNA

Inork ez daki nora joko duen etorkizuneko arteak, baina ez da erokeria aurreikustea In-mersiones topaguneak osa-suntsu jarraituko duela hu-rrengo urteetan, eraginkor, «ondo funtzionatu duelako iraganean eta egun ere fun-tzionatzen duelako». Baina be-rritasunak izango direla diote.

Harro dira Diaz de Corcuera eta Larribek, Inmersionesen parte hartu dutenetako asko «etorkizun oparoa» izatetik «artearen munduan errealita-te finkatuak» izatera pasatu direlako.



Marisol RAMIREZ | FOKU

IKUSMIRA

DURANGOKO AZOKA

Garai batean ez zen hainbeste gazte ikusten. Helduak ere ez ziren samaldan joaten. Hamarkada bat eta erdi du Landako Erakustazokaren be-roan, baina lehenago beste lau hamarkada hainbat lekutako karpetan, Merkatu Plazan eta Andra Mariaren basilikako arkupean. Han egiten zenean, ez zegoen goienkalerik, ez barrenkalerik, eta argitaletxe gutxiagok parte hartzen zuten, argitaletxe gutxiago zeuden-eta, batez ere euskal argitaletxeak. Berez, Durangoko Euskal Liburu

eta Disko Azoka da, baina nahikoa du Durangoko Azoka. Ez du jatorriaren adierazpiderik behar, RAEk ez bezala. Izan ere, euskalgintzaren topagune izan nahi zuen, eta hala da. Arazo ugari izan ditu mende erdia baino gehiagoan, mota guztietako arazoak, ordezkatzeko duen jendarteak bezala, baina, jendarteak berak egin bezala, arazoak gainditzen joan da, iparra galdu gabe eta okerrak gorabehera. Horri esker, urtero gazte tropela hartzen du bere kaleetan. Nola oroituko du liburutik bista altxatu duen neskailak mende erdi barru? Xabier Izaga Gonzalez



EXPRAI

iRRITZIA:



Meri gehiago eta Mercedes gutxiago

Oihane Larretxea
de la Granja

Mercedesek 89 urte ditu eta Bilbon bizi da. Ez du goizeko kafea zeinekin konpartitu eta afalosteko tertuliarik ez dago bere etxean. Hogeita hamar urte dira koltxoia handiegia gelditu zitzaiola. Maindireak hotzak dira. Batzuetan, egun osoan, ez du hitzik egiten eta gaue-
tan ahotsa ere ez zaio ateratzen. «Bakardadea beldurgarria da, inoiz imajinatu ezin den zerbait. Hainbeste ordu dira etxean sartuta, bakardadeak irentsi egiten zaituela. Lehen nik bizitza nuen, baina orain ez daukat ezer. Lagunak hiltzen doaz, familia hiltzen doa... Bizirik nago baina hilda sentitzen naiz», dio.

Hego Euskal Herrian 177.000 pertsona inguru bizi dira bakarrik. Bakar-bakarririk. Eta uste dut Mercedesek arrazoi osoa duela. Ezin dela imajinatu ere egin. Zer esan dezaket neuk bakardadeaz? Deus, gaur-gaurkoz pribilegiatua naiz.

Gure etxebizitza bloke berean gertatzen den egoera horretaz jabetzeko abiatu du BBK-k ekimena Bilbon, Mercedesen eskultura hiperrealista Areatzako banku batean ipiniz. Inpaktuzko kanpainan da eta akaso balioko du benetan kontzientzia hartzeko eta gure esku dagoen apur hori egiteko, eragin dezakegulako.

Geroztik Mercedesen hitzok buruan bueltaka ditut, are eta konpainia exiji-

tzen duten ditxosozko data hauetan. Gabonak. Politak bezain mingarriak.

Baina badugu besteen hutsune hori nola bete. Bretxan duen lore eta landare postuan Merik kontatu dit Gabon gaua azken urteetan konpainia egiten aritu zaion aitonaekin pasako duela. Alarguna da eta itzaltzen ari da. Ez du inor, eta ez du etxetik mugitu nahi. Meri bera joango da berera afaltzera, senarra, alaba eta ama utzita. «Gabonak zoriontsu igerotzeko modu asko dago, eta nirea hau da», dio. Horrekin bueltaka nabil orain.

Hobe alde batera uzten baditugu eskulturekin egindako *selfie*-ak eta gure bizilagun horri atea jotzen badiogu. •

Galduko ez bada

Koldo Sagasti

Aste honetan, euskararen egunaren harira, askok gogora ekarri dute Joxean Artzeren lelo esanguratsu hura: “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Ezingo nioke koma bat ere kendu Usurbilgo pentsalariaren gogoetari, baina bai gaur egun zenbaitek egiten duten lelo horren irakurketa bihurriari. Egun ez da falta “dakitenek” horretan “dakitenen artean bakarrik” ikusi nahi duenik, dakitenek dakitenekin eta dakitenen ondorengoek dakitenen ondorengoekin.

Horrela justifikatzen dute guraso, us-tez, euskaltzale askok itunpeko eskola

lehenestea publikoaren kaltean. Argudiobide maltzur hori baliatzen dutenek euren kezka azaldu ohi dute eskola publikoak, non guraso erdaldunen seme-alabak kontzentratzen diren, ez ote duen bermatuko euren haurrak euskara garbizko testuinguru batean hezte. Eta horrela, itxuraz behintzat, euskaldunen umeak kontzentratzen diren eskola sistema hobesten dute, bide batez, Euskal Herritik kanpotik etorritakoen kumeek ez ditzaten kutsatu euren barruti mugatuak. Euskara gutxiengo pribilegiatu baten ondarea delakoan, ghettoak sortzen ari dira. Izan ere, gizarte maila apaleneko eta atzerriko jatorrikoen ondorengoak metatzen diren zenbait eskola

ghettoak badira, neurri berean dira ghettoak zortzi belaunaldiko eta egoera ekonomiko erosoko familia zurienek biltzen dituztenak ere.

Gizarte gero eta pluralago batean bizi gara. Eta aniztasun hori aberasgarria da, baita euskararentzat ere. Hizkuntza galduko ez bada, dakitenek hitz egin beharko dute, noski; baina, hizkuntza dakitenen monopolioa bihurtu gabe, ez dakitenak eta euren ondorengoak ere euskararen altzora erakartzen asmatu beharko dute. Horixe da Hezkuntza Erakundearen politika baztertzailen gainetik Euskal Eskola Publikoa betetzen ari den hutsunea. Bertan dago euskararen biziraupenaren etorkizuna. •

SARE SOZIALAK IRAKASLE

Youtuben sartzen diren «millenial»-en %70ek zerbait ikasteko asmoz egiten dute

 JENDARTEA / GAUR8

Sukaldaritza makrobiotikoa ikastea, zulo beltz bat zer den ulertzea, papiroflexiarekin ezpata bat egitea edota japoniar lorezaintzako historia edo teknikak ikastea erraza edo zaila izan daiteke Youtuben, baina joera nabarmena da batez ere gazteengan. Hartara, bideo-plataforma bihurtu da gauzak ikasteko sare nagusia.

Googlek emandako datuen arabera, Youtubeko *millenial* erabiltzaileen %70ek bideo bat ikusi dute zerbait berria ikasteko edo interesatzen zaien gairen batean sakontzeko. Sare sozialetan adituak direnen arabera, «Youtubeko hezkuntza arloko bideoak oso formatu interesgarria dira erabiltzaileentzat, hurbilekoak dira, ikus-entzunezkoak, estilo fresko eta atsegina dute, *youtuber* arekin enpatizatzeak aukera ematen dute... Gainera, bideoa nahi den guztietan kontsultatzea abantaila da».

Egunero ikaskuntzarekin lotutako edukia duten mila milioi bisita gertatzen dira Youtuben, eta milioi bat baino gehiago partekatzen dira. Arrakastaren gakoetako batzuk ahozko narrazioa, lagunarteko hizkera edota esperientzia edo ezagutza propioa lehen pertsonan azaltzea dira, gazteek sare sozialez egiten duten kontsumo altuari gehituta –“Z belaunaldiko” kideen %47k egunean hiru ordu baino gehiago ematen dituzte Youtuben, eta baita *millenial*-en %22k ere–. Horrez gain, plataforma bisualekiko zaletasunak ere azaltzen du gorakada.

Arrakasta hori plataformak berak ere nabaritu du, eta, ondorioz, Youtube Learning dibulgazio ekimenerako 20 mi-

Aditu batzuen arabera, «edutuber»-ak eta «influencer»-ak ezagutzaren dibulгатzaile bihurtzen ari dira sare sozialetan, Youtuben sartzen diren «millenial»-en %70ek zerbait ikasteko asmotan egiten baitute. Nonbait, «Z belaunaldian» jaiotakoek nahiago dute ikus-entzunekoen laguntzarekin ikasi liburuetan egin baino.



«Z belaunaldian» jaiotakoek nahiago dute sare sozialetako bideoen bidez ikasi ikasliburuetan baino.
GAUR8

lioio dolarreko inbertsioa iragarri du.

Erabiltzaile askorentzat bideo bat ikustea da gai bat ulertzeko edota ezagutzeko modu eraginkorrena, eta Youtubeko edukien aukerak amaigabeak eta askotarikoak dira. Hartara, erabiltzaileen %86k diote maiz sartzen direla zerbait berria ikasteko. «Jendeak sarean dau den bideoak begiratzen ditu trebetasun berriak ikasteko, gauzak ikasteko, pasioak jarraitzeko edota zalantzak kontsultatzeko, eta horrek segurtasuna eta konfiantza ematen die».

«EDUTUBER»-AK

Agertoki horren aurrean, ez da harritzekoa dibulgaziorako figura berriak sortu izana, hala nola *edutuber*-ak, hezkuntzan eta dibulgazioan espezializatutako *youtuber*-ak.

«Edukiaren sortzaileak gara, eta bideoa eta Youtube plataforma erabiltzen ditugu dibulgazioa egiteko eta edonori historia, matematika, musika, marketina edo beste edozein gai dohainik irakasteko». Eta Youtube erreferente handia bada ere, Instagram ere joera horri batu zaio.

“Z belaunaldiko” kideek nahiago dute Youtuben ikasi liburuekin baino. Izan ere, zientzia modu erraz eta dibertigarrian ulertzea erronka eta baliabide baliagarria da “Z belaunaldiko” gazteentzat. AEBetan egindako “Beyond Millennial: The Next Generation of Learners” ikerketaren arabera, 14 eta 23 urte bitarteko ikasle-en %59k nahiago dute Youtuben ikasi eskolako liburuekin egin baino. «Ez dugu klaseen alternatiba izan nahi, ikasleek klasean ikasten dutena indartzen duen materiala izan nahi dugu», nabarmendu dute.



>Aretxarte: Gabonetan ere erresistentzia

«Erresistentzia gara». Hori da Aretxabaletako Aretxarte merkatarik elkartek Gabonetarako zabaldu duen mezua. Ohiko bihurtu da merkatarik elkartek horren Gabonetako mezua eta aurtengoan merkataritza gune handien aurkako «erresistentzia» aldarrikatu dute.

Aretxarte merkatarik elkartek prestatu duen bideoa egiteko, “La Casa de Papel” telebista sail arrakastatsuko iruditegia



erabili dute, eta, “Bella Ciao” abestiaren doinupean, merkataritza gune handien eta indarreko kontsumo ereduen aurrean merkatarik txikiak «erresistentzia» goraipatu dute Gabonak aurrera ateratzeko.

Bideoan, Kepa Errasti aktoreak poliziaren papera egiten du. Hain zuzen ere, merkatarik txikiak, saltoki handiak gorabehera, bereari nola eusten dioten ikertu nahian dabil.

>Euskararen Eguna, sare sozialetan


Twitterreko joera izan ziren iragan asteartean, abenduak 3, euskararekin lotutako mezuek. Besteak beste, euskaldun berri bezala lehendabiziko Euskararen Eguna zuela kontatu zuen Yasminek, emozioz; Ainhoa Latatuk, aldiz, ikasleei aditutako hitzak idatzi zituen: «*Tío, que hoy es el día del euskara*».

Askotariko mezuek zabaldu zituzten herritarrek eta eragileek sare sozialetan #EuskararenEguna traolarekin. Zorionak eman zituzten, egiteko



dagoen lana nabarmentzearekin batera. Ez zuten ahanzi Nafarroaren Eguna ere bazela: «Euskarak egiten gaitu nafar, Nafarroak egiten gaitu euskaldun».

«Gaur, ere bai! Euskaraz bizi nahi dut», egin zuen aldarri Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak. Arabako “Alea” aldizkariak irakurraldi batekin ospatu zuen eguna. Eta Koldo Martinez Madrilgo Senatuko Nafarroako ordezkariak euskaraz ireki zuen saioa.



>Ahmed Salem sahararrak badu oraindik esperantza

Saharako lurralde asketik, Andoni Lubakik bere azken blogean Abderraman Polisarioko soldaduen istorio ikaragarria kontatu du, Ahmed Salem haren anaiaren ahotik entzunda. «Marokoarren aurkako operazio batean harrapatu zuten 1985ean. Garai hartatik daukadan informazio bakarra kartzelatik ihes egin edo urte askoren



ondoren askatu dituzten Polisarioko gudarien bidez jasotakoa da (...). Kartzela askotatik pasa omen zen, edo da. Ez dakit oraindik bizirik dagoen (...). Torturengatik hanka bat zornatu eta anputatu egin behar izan zioten (...). Sakonean badut anaia bizirik egongo den esperantza. 34 urte pasa diren arren, badut esperantza oraindik».



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Azokak

Lotsatuta nabil. Dardarka, gorrituta, totelka. Abendua hasi besterik egin ez den honetan urrun ikusten dut hilabete bukaera, eta Durangoko barra ertzetan xahutu zaizkit nire aurrezki apurrak. Eta bai, nik joan egin nahi nuen; zin dagit ekarpen bat egitera etorri naizela. Baina postuetara hurbiltzeak ikaratu egiten nau. Beste idazle bat baldin badago, zer? Berea ez den liburu bat eskatzeak asaldatu egiten nau. Eta idazlea bera baldin badago are okerrago, niri ez baitzaizkit liburu sinatuak gustatzen; nahiago dut neronek arkatzez azpimarratu eta marginetan txorakeriak idaztea. Horregatik nabil lotsatuta, dardarka, gorrituta, totelka. Durangora etorri, tabernen labirintotan galdu eta ezer erosi ez dudalako.

Errudun sentitzen naiz, hemen, Plateruenako ertz honetan, nire moduko ganoragabez inguratuta, garagardo bana eskuan: euskarazko sortzaileak goseak hiltzen eta gu hemen bertso txikietan. Euskaraldian bere misioari eutsi ez eta bere betiko tabernariak «*buenos días*» esan eta zuzenean gazteleraz erantzun duenaren pare. Etxeko birziklapenaren aldeko kanpaina baten gisan; gu gara mundua suntsituko dugunak, arrandegira tuperra hartuta joaten ez garelako. Gure auzoko porlan fabrikak kea betiko moduan isuri arren, gurea da errua, gutako bakoitzarena. Nire auzoak da errua, zurea, zehazki zuk, zehazki gaur eta zehazki hemen liburu zehatz hori erosi ez duzulako. Zuk hil zenuen euskal kultura.



Iaz Durangoko azokan jasotako une ederra. Juan Carlos RUIZ | FOKU

Erosketarik egin ez, eta harrigarria da kargaren kargaz nola okertu zaidan bizkarra. Suntsitzera goazen mundu baten, hizkuntza gutxitu baten eta kultura gutxitu baten zama daramatzat gainean. Bartzuetan iruditzen zait hegemonikoa denak ez duela osteopaten beharrik izango.

Amonarekin gogoratu naiz. San Martingo merkaturuko postu batean igarotzen zituen goizak, «plazan». Tarteka laguntzera edo joaten ginen bereganatzen. Goiz-pasa. Babarrunak aletzen aritzen ginen postu barruko ezkutalekuan. Aulkian eserita, ez genuen beste aldean zegoena ikusten, ez eta beste aldekoak gu ere. Azoka guretzat ahots multzo bat zen, egunero errepikatzen ziren ahots horiek.

Ez dakit zergatik joan naizen San Martinera. Akaso kultura bat hau ere badelako: ospatzeko, eztabaidatzeko eta borrokatzeko plaza bat; belnaldiek talka egingo duten eremu bat; lagunekin egoteko espazio bat.

Agian, galdera ez da zenbat garen; lau, bat, hiru, bost, zazpi. Galdera da ea non eta nola egiten dugun topo; nolakoak diren espazioak, nolakoak diren baldintzak. Ez gara erosleak bakarrik; sortzen ari denaren biziraupena ez da gure lan prekarioaren hilabete amaierako soberakinen ardura bakarrik. Bestelako babes-sistemak asmatu beharko ditugu. Kulturak ez baitira salgaiak; kulturak ez dira salbatzen. Kulturak bizi egiten dira.

Ni Landako ertzean geratu naiz; zorupean hondartzarik ba ote dagoen galdezka. •

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Pentsatu eta idazten direnak

A sko famatu diodan liburu bat eskatu dit amak. Aspaldian ez nuen apalategitik hartu eta, *croupier* batek kartak nola, hala pasatu dizkiot orrialdeak. Horitu egin dira, zahartu; eta haiekin ni, gu. Azal azpiko lehen orrialdera jo dut gero, zehazki zenbat zahartu ote garen begiratzeko. Izan ere, liburuak non eta noiz erosi ditudan apuntatzeko ohitura dut, nire izen-abizenen azpian.

Eleberria 2011koa da, eta argitaratutakoan irakurri nuen nik, txikitan bizi izandako historia zati txiki bati hari oso bat josteko aukera eskainiko zidalakoan. Amak, aldiz, ez du gaurdaino liburuak irakurtzeko gogorik bildu, gaztetan gertu bizi izandakoak gogora baitzekarzkion istorioak; tristura sortzen. Zaharrenaren gaztetu nahi eza, eta liburuak orrialdeen pare horitzeko gazteenaren nahia. “Twist” zoro bat.

Neure baitan pentsatu dut, beste nonbait geundekela, halako trukeak gehiagotan gertatuko balira. Lotuegiak baikaude geure belaunaldiaren-testuinguruaren-komenentziaren-egoera pertsonalaren-zilborraren hestera. «Pentsatu eta esaten ez diren gauzak», “Twist”-en bezala; baina, askotan pentsatuz gero, batzuetan idazten direnak.

2011. urteko urtarrila zen, Tolosaldean aldarri baten lehen txinparta piztu zenean. Aldamenean ditugun eskualde guztietako osasun zerbitzu berbera eskatu, eta Asuncion klinikako ustezko irregularitasunak eta zor historikoa salatze ko koordinakunde eta gizarte mugimendu bat martxan jarri zirenean. Kazetari lanean hasiberria nintzen orduan, eta borrokaren gudu zelai guztiak ezagutzeko aukera eskaini dit horrek. Ia bederatzi urte eta gero, horitu

dira orduko egunkariak, eta baita Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde dioten pankartak ere.

Eta, beharbada, ez da kasualitatea. Bai baitirudi, zahartzen hastea baldintza ezinbestekoa dela, inor bere osasun sistemaz kezkatzen has dadin. Gazteok ez garela geure belaunaldiaren-testuinguruaren-komenentziaren-egoera pertsonalaren-zilborraren hestetik askatuko, baldin eta zilbor hori eta haren ingurua ukitzen duen katarro, gripe, hepatitis, migraina edo apendizitis bat suertatzen ez bada. Eta, orduan, orduan bai, “twist” bat dantatzeko pronto egon nahiko dugu hurrengo egunerako eta, egongo ez garenez, akaso memoriara etorriko zaizkigu, hilerohilero Tolosako Trianguloa plazan ikusi ditugun pankarta eta afixa horituak; haiek tinko eusten dituzten eskuen zimurrak.

«Norberak bere borrokak ditu», irakurri nion behin bati. Arrazoi izan zezakeela pentsatu nuen eta, beharbada ezinezkoa dela, nik zerbait bizitzeko dudari pasio maila berbera, beste inori exijitzen aritzea. Baina, norenak dira osasuna eta bizitza deituriko borroka txiki hau, gureak ez badira? Norenak dira egunak, ohetik jaikitze ko osasunik ez dugunean? Egunkari al dira, berdin-berdin? Norenak lirake ajeak, bezperan parranda sasoi betean gozatzeko osasuna falta izan balitzaigu?

Momentua, eta bizitza, eta egunerokoa bizi behar ditugula saldu nahi izan digute, bai; *carpe diem* gorpuztu bat izan behar dugula, zoriontasunaren atera gerturatuko bagara. Baina tarteka denborari aurrea hartzea ere ederra izan liteke, jada horitzen hasiak diren liburuak apalategi txukunetan goxo zaintzeko, eta inprentatik ateratzear direnak urtean leun-leun mantentzeko; pentsatu, eta esango didazue. •

Norenak dira osasuna eta bizitza deituriko borrokak, gureak ez badira? Norenak dira egunak, ohetik jaikitze ko osasunik ez dugunean? Egunkari al dira, berdin-berdin? Norenak lirake ajeak, parranda sasoi betean gozatzeko osasuna falta izan balitzaigu?

«Pilotari profesionala izateak eta bizitzeak talka egin zuten; eta nik bizi egin nahi dut»

**JUAN
MARTINEZ DE IRUJO**

PILOTARI OHIA

Juan Martinez de Irujo (Ibero, Nafarroa, 1981) fin-fin mantentzen da. Bi kilo baino ez ditu irabazi pilotari jarduna utzi zuenetik. Zaindu egiten da. Pilotari lotuta bizi da, gazteenei erakusten, partidak ikusiz, Joseba Ezkurdia lau eta Erdiko txapeldunaren aholkulari. Trabarik gabe mintzatzen da erretiroa hartzera behartu zuen gaixotasunaz, bere egunerokoaz, euskaraz, baina ez hainbeste pilotako mito bat izan zela galdetzen diotenean, edota politika kontuez. Familia bizitzaz gozatzen jarraitu nahi du, baina garbi aitortzen du pilotari zeneko garaia faltan botatzen duela.

Andoni URBISTONDO



Alabak ikastolan utzita azaldu da hitzordura, Mutiloagoitiko taberna batera. Irribarretsu, natural. Bi urte luze pasa dira komunikabideen, zaleen fokutik aldendu zela, eta beste herriar arrunt bat bilakatu da.

Zer moduz bizi zara?

Pozik, lasai. Hiru urte eta erdi pasa dira pilota utzi nuenetik eta pilotari nintzenean baino askoz lasaiago bizi naiz, familia bizitza eginez erabat.

Parrandarik egin al zenuen Arbizun, Ezkurdiarekin, lau eta erdiko txapela irabazi os-tean?

Bai, pixka bat. Baina gero eta zaharragoa naiz. 38 urte ditut, eta gehiago kostatzen zait animatzea. Halere, biharamuna baldin baduzu, bezperan gozatu duzun seinale, ezta?

Ezkurdiaren oso hurbilekoa zara.

Bai, oso lagunak gara. Bera profesionala izan baino lehenago kilometro piloa egin zituen nirekin autoan, entrenamenduetan-eta, eta harreman ona dugu. Mesede asko egin dizkit, eta ni orain bere ondoan ego-
tea egin zizkidan mesede piloa bueltatzeko modua da.

Zer da Juan Josebarentzat?

Lagun on bat. Asko hitz egiten dugu, batez ere bietako batek laguntza behar duenean.

Ezkurdia «Irujotu» egin dela, zure antza hartu duela esan eta idatzi da han eta hemen azken asteotan. Zer diozu?

Ba Ezkurdia Ezkurdia dela eta ni Juan Martinez de Irujo. Ezin dira bi pertsona horrela parekatu, nahiz eta niretzat polita

izan nire antza duela esatea. Izaeran, jokatzeko moduan ezberdinak gara. Hiru final jakatu eta hiru txapel irabazi badi-tu ez da nire antza duelako, pilotari aparta delako baizik, eta kito.

Ustekabea izan al zen Ezkurdiak irabaztea?

Ba pixka bat bai. Finala baino hamar egun lehenago galdetu izan bazenit, oso zaila zegoela pentsatzen nuen, batez ere Jokin Altuna ikaragarri jokatzan ari zelako, eta Ezkurdia, aldiz, zalan-tza askorekin. Finala gerturatu ahala, lasaitzen joan zen, final atariaz gozatzen, eta konfiantza irabazi zuen. Eta berak irabazten zuen neurrian, nik ere bai.

Zu bezain lehiakorra da.

Eta nor ez? Egun pilotari denak dira lehiakorrak. Ezkurdiak lan handia egin du hain lehiakor izateko, entrenamendu gogorrak egin ditu. Horrek konfiantza eman dio finalei begira. 24 ordu pilotan pentsatzen ematen ditu, eta dena zaintzen du: prestakuntza, elikadura, buruko indarra...

Inbidiarik pasa al zenuen lau eta erdiko finalean? Pasatzen al duzu frontoira joatean?

Ez asko. Onartua daukat bukatu zela, eta ez dela egoera hori bueltatuko. Lagunak lurrean ezinean ikusten ditudanean, jota, eta ni, sofan, lasai-lasai, ez dut faltan botatzen pilota.

Zer moduz doakizu bizitza, zer egiten duzu egun normal batean?

Familiarekin denbora pasa [Gema emaztearekin eta bi alabekin, June eta Arhane, 9 eta 6 urte]. Egunero eramaten ditut ikastolara goizean, eta arratsaldetan haien bila joan. Profesionala nintzene-



«Urtero egiten dituzun mediku azterketa horietako bat izan zen.

Badakizu, bukatu, eta medikuari esaten diozu: ‘zer, dena ondo ez?’, lehenbailehen martxa egiteko. Eta hor segundo batzuetako isilunea eman zen. Hor hasi zen dena. Azterketa zehatzagoak egiten hasi ziren, eta panorama gero eta beltzagoa zen»

an ezinezkoa zen hori, beti neukan entrenamenduren bat edo beste konturen bat. Asteburuetan, beti partida bat edo bi, eta alabekin egoteko tarte bat bilatzen. Orain nahi beste tarte daukat. Normalean korrika egiten dut egunero, erritmo lasaian, pixka bat sasoian mantentzeko, tripotxa ez ateratzeko. Erosketak, bazkaria prestatu... Astean bitan pilota eskolak ematen ditut, Elkarpilota enpresarekin. Gero etxera bueltatu, afaria... Familia bizitza lasaia daramat.

Zer da Elkarpilota?

Patxi Eugik, Peio Martinez de Eulatek, Fernando Goñik eta laurok sortu genuen enpresa. Pilota eskolak ematen ditugu Nafarroako herrietan. Pilota dugu gustuko, eta Nafarroan lizentziak gutxitzen ari zirela ikusita, zerbait egitea erabaki genuen. Imarkoain eta Etxarren herrietan aritzen naiz ni, ordubeteko entrenamendu berezituak gidatzen, bakoitza lauzpabost pilotariko taldearekin. Teknika eta taktika erakusten saiatzen gara. Bizioak, jarrera jakin batzuk ezabatzen saiatzen gara, pilota egoki nola kolpatu behar den erakusten saiatu eta beste.

Eta zer diote gazteek, irakasle pilotari ezagunak dituztela ikusten dutenean?

Hasieran ezustekoa hartu zuten, baina dagoeneko bost urte daramatzagu, eta ohitu dira gurekin.

Zenbat urteko gazteak dira? Txintxoak al dira?

Txintxoak dira, bai. 8 eta 18 urte bitartekoak. Etortzen direnak ikasteko asmoz etortzen dira, ez jolasera. Klaseak nahiko dinamikoak dira, gazteak mugituak direlako eta motibatu egin

behar dituzulako. Ni oso gustura nabil. Neguan agian ez hain beste, frontoian hotz handia egiten duelako, baina tira.

Eta zein da Elkarpilotaaren helburua? Pilotari onak sortzea?

Ez, pilotan jokatzea. Gero hortik jorjala lortzen badute, ba aurrera. Gure gaixotasuna beraiet kutsatzea da asmoa.

Zenbat denbora, dagoeneko, erretiratu zinenetik? Gogor-tzen al zara?

Bai, bai. Ondo gainera. 2016ko uztaila.

Nola izan zen agurraren prozesua?

Beno, urtero egiten dituzun mediku azterketa horietako bat izan zen. Badakizu, bukatu, eta medikuari esaten diozu: ‘zer, dena ondo ez?’, lehenbailehen martxa egiteko. Eta hor segundo batzuetako isilunea eman zen. Hor hasi zen dena. Azterketa zehatzagoak egiten hasi ziren, eta panorama gero eta beltzagoa zen. Ezusteko ikaragarria izan zen niretzat egun hura, baina gero jabetzen zara eskerrak eman behar dituzula gaixotasuna antze-man zidatelako. Horri esker nago gaur zurekin hitz egiten. Bestela, agian ez.

Nolakoak izan ziren bihotzeko gaixotasuna zeneukala esan osteko hilabeteak?

Ez pentsa egoera onartzea asko kosta zitzaidanik. Ondoan neukan emaztea, eta alaba txikiak, eta horrek pisu handia du hausnartzen duzunean. Han eta hemen galdetu genuen, prestigio handiko medikuak, beti emaitza edo analisi on bat bilatzen, zirrikituren bat bilatzeko asmoz. Baina egunek eta asteek aurrera egin

ahala, diagnosia berbera zen, eta agurraren etorrera gerturatu egin zen.

Noren belarrira jo zenuen barruak askatzeko?

Emaztea, aita eta ama, lagun onak... Jende guztiak berdina esaten zidan. Arriskurik ez hartzeko. Ez zen pilotan jokatzea bakarrik, entrenatzea baikizik, gu 200 pultsazioko mugara askotan iristen garelako. Ez pentsa kolpe ikaragarria izan zenik. Nik garbi neukan, bizi egin nahi nuela, eta pilotari profesionala izan eta bizitzeak ba talka egin zuten. Erabakia erraza izan zen, benetan.

Pilotalekuetako erregea zinen. Trantsizioa ez zen erraza izango, noski...

Prestatuta nengoen. Esan bezala, banekien eguna etorri egingo zela. Egin nezakeen guztia egin nuen, bueltatu ahal izateko, baina egun batean, mediku batek deitu zidan, eta galdetu zidan: ‘zer, nola nahi duzu hitz egitea, gordin eta zuzen, edo zurikeriekin?’. Nik garbi hitz egiteko esan nion. Esan zidan ez zegoela zer eginik. Etxean nengoen, solasaldi horretan. Hondoratu egin nintzen, baina jaiki nintzen, pixkanaka.

Zer sentitu zenuen Labriten ofizialki agurtu zinenean, hainbeste jenderen aurrean, etxekoak, lankideak...

Beldurra atarian, eta lasaitasuna gero. Baikorra izan behar da. Gehiegizko arriskurik ez hartzeko aholku batzuk eman zizkidaten, betetzen ditut, eta aurrera. Bihotzak ez du minik ematen, baina, kale eginez gero, agur. Kontuz ibili behar da.

Jendeak nola hartu zuen zure agurra?

Ba bitxia da, baina erretiroa jakinarazi ostean jendearen gertuko babes handia sentitut, herritar asko hurbildu zaizkit, errespetu handia edukite nirekin, gaiaz galdetu gabe. Komunikabideena ere bai. Bazekiten zer zegoen, zer pasatzen ari nintzen, eta errespetatu zuten nire barruko dolu hura.

Herriaren pilotari kutuna izan zara, Juan.

Pilotan hasi ginenetik hori erakutsi digutelako. Takoak jarri aldagelan, solasean aritu lankideekin, aurreko partida ikusteko atera eta harmailetan dauden zaleak agurtu... Niretzat galtzen ari diren ohiturak dira. Pilota profesionalizatzen ari dira etengabe, eta herritik, afiziotik, urruntzen ari da.

Zer esango zenieke aginte makila dutenei?

Ba profesionalizatzea ondo dagoela, baina ez dela pilotaren esentzia alboratu behar. Eta esentzia zaleak dira. Kirol hau indartsua bada, hain eremu txikian, zaleengatik da.

400 eserleku libre geratu ziren lau eta erdiko finalean, Nafarroa Arenan. Deigarria egin zitzaizun?

Beno, pilotaleku batean 3.000 lagun sartzea ere ez da erraza.

80 eta 120 euro arteko sarre-rak ez al dira garestiegiak?

Nik ez dakit zein den salneurri egokia. Badakit harmailak hutsik ikusten badira, sarre-rak garestiak direlako dela. Kontra, dena betetzen bada, ez dira garestiak. Eskaintza eta eskaeraren legea da. Finalak finalak dira, eta sarrera onak ordaindu egin behar dira...

«Pilotan hasi ginenetik hori erakutsi digute; takoak jarri aldagelan, solasean aritu lankideekin, aurreko partida ikusteko atera eta harmailetan dauden zaleak agurtu... Niretzat galtzen ari diren ohiturak dira. Pilota profesionalizatzen ari dira etengabe, eta herritik, afiziotik urruntzen ari da»



Hamahiru txapela lortu zenituen. Aurretik pasatzen zarenean begiratzen al diezu?

Begiratzen diet, baina hor dau-de. Txapel asko irabazteko aukera izan dut, baina pasatako garaia da.

Zein txapelek egin dizu ilusiorik handiena?

2006ko lau eta erdikoak, Juan Angel aita izan bainuen botilero. Abel Barriolaren aurka 22-21 irabazi nuen. Hiru txapelak irabazi nituen lehen urtea izan zen, gainera. Aitari mesede egin zion beste botilero bat hartzeak, hark ikaragarri sufritzen zuelako aulkian. Aitak gutxi hitz egiten zuen, baina, esaten zuena, beti zentzuzkoa. Oso-oso gustura aritzen nintzen bera lagun-tzaile izanda.

Jende askok miresten zaitu. Jende askok esaten du: «inoizko onena, pilota aldatu zuena», Aimar Olaizola edo Julian Retegiren gainetik.

Eskertzen diet horrela ikusten nauten zaleei, benetan, baina ez naiz eroso sentitzen halako loreekin, laudorioekin. Betiko onena izan ote naizen eta halakoak. Beste pertsona normal bat izatea dut gustuko, nire lagun-en laguna. Galdera hori egin didazu, eta zer esan ez dakidala geratu naiz, deseroso.

Baina aireko joko harekin pilota klasikoa desagerrarazi zenuela zure zaleak ez direnek ere aitortzen dute.

Nik eta Aimar Olaizolak, esango nuke. Final asko izan dira elkarren aurka. Ez da hainbestera-ko. “Eredugarri”, “bakar”, “handi” eta antzeko terminoe-tatik urrun sentitzen naiz, eta harro diot gustuko nuena egi-nez atera ahal izan dudala bizi-tza, izan naizela txapeldun.

Horrek loreek baino gehiago asebetetzen naute.

Airez jokatzeko hori, bat-batean bururatu zitzaizun edo hala jokatu zenuela bazenekien partida hasi aurretik?

Ez ez, banekien. Niretzat airez jokatzeko pentsatzeko denbo-ra gutxiago edukitzea esan nahi du, aurkariak azkarrago pentsatu behar izatea, eta abiadura horretan hobeto moldatzen nintzen. Lehen urtean denei sufriarazi nien, baina bueltan nik ere sufritu egin nuen, besteak nire jokora mol-datatu zirenean.

Zale guztiak aho bete hortz utzi zenituen, 2005ean, manomanistako finalerdian. 21-21, Patxi Ruizen aurka, sakea errestatzera joan, eta boleaz erantzun zenuenean. ETBko esataria, Xabier Euzkitze bera ere sinetsi ezinik utzi zenuen, final hartan. Baina irabazi egin zenuen.

Bai, baina jendeak ez zekiena hauxe zen: ezker eskuko hatza hautsita neukan eta sake hura botearekin errestatzea ezinez-koa izango zen. Gogoratzen naiz, bai, sortu zen harrabotsa.

Hamarkada pasa pilotan, erretiroa hartu bitarteko lasaitasun ekonomikoarekin erretiratu al zara?

Ez, ez. Dirua irabazi, irabazi dut, baina erretiratu aurretik lanen bat bilatu beharko dut, noski. Gastuak handiak dira familia batean: etxea, autoa, bi alabak... Baina tira, pribilegiatua senti-tzen naiz daukadanarekin, eta orain ezin hobe bizi naiz.

Zer jardunetan aritzea gustatuko litzaizuke? Pilota munduan edo hortik aparte?

Urte batzuk atzera gustura emango nuke enpresaren bate-

an lana egiteko baiezkoa, baina egun... Asteburuetan askatasuna edukitzea gauza ona da, eta, pilota profesionalean hasiko banintz, asteburuei agur esan beharko nieke bai edo bai. Entrenatzaile jardunak erakartzen nau gehien, agian.

Botilero edo laguntzailearen figura ere kendu zuten. Zu horren aurka mintzatu izan zara publikoki.

Bai, pilotaren esentzia delako. Beti egon izan dira, eta egon beharko lukete. Nik jokatu izan ditut hainbat partidu laguntzailerik gabe, eta oso monotonia, aspergarria egiten da. Nire ustez pilotari guztiok botatzen dugu faltan. 18. tantora iritsi, eta denok eskertzen dugu aholkuren bat, kantxan ikusten ez dugun xehetasunen bat, «ez egin hau», «kontuz kolpe honekin»... Batez ere pilotaria animatu eta kontzentrazioa mantentzen lagundu. Laguntzaileak kentzeak helburu garbia du nire ustez: dena kontrolatzea, euren taldean ez dagoen jendea barruan egotea, hori saihestu nahi dute. Eta laguntzailearekin ezin zuten halakorik lortu.

Egun pilotarien baldintzak zuen garaikoak baino kaskarragoak omen dira.

Ez daukat informazio zehatz-zehatzik. Entzuten dira gauzak, eta baliteke, bai, gu baino okerrago egotea. Dena den, enpresek erabakitzen dituzte zenbakiak, soldadak, eta pilotariak nahi ez badu, eskaintzen diotenarekin ados ez badago, ez du kontratua sinatzen.

Urrutikoetxea eta Aimar elkarrekin jarri dituzte binakako txapelketan. Zer diozu?

Beno, arriskatu beharra dauka Baiko enpresak. Aspek zazpi



txapela irabazi ditu jarraian, eta zerbait asmatu beharra dauka bolada txar hori nola edo hala eteteko.

Aimar Olaizola aipatuta, bada jende franko biok gaizki moldatzen zaretela uste duena. Ez da hala...

Bai zera, ondo moldatzen gara! Tira, ez gara geratzen egunero ardo batzuk edateko, baina harreman ona dugu ikusten garenean. Gure garaian Barça eta Real Madril bezalakoak izan ginen. Nire aldekoa zenak Aimarren kontrakoa izan behar zuen, eta alderantziz. Dikotomia hori elikatu zen. Berak joko molde jakin bat zuen, nik bestea, batzuetan berak irabazten zuen, besteetan nik... Pike sanaia eduki genuen, bioi ondo etorri zitzaiguna, pilotari ho-beak egin ginelako bata besteari esker. %120a eman beharra izan genuen bestea menderatzeko. Mundu honetan denak moldatzen gara ondo, ez dago atzera bueltarik ez daukan ikusezinik gure artean. Bi astez behin frontoian gaude, eta han batzen gara sarrien. Telefonoz ere askorekin hitz egiten dut: Abel Barriolarekin, Mikel Idoaterekin...

Damutzen zaren zerbait bada?

Noski. Kale egin dudala onartu dut, baina denok bezala, ezta? Barkamena eskatu eta kito.

Frontoiren batean pilotaren bat kale egin, aurreko atletik irten eta atzekotik bueltatu zinen partidaren bat ba omen da...

Bai, Bilbon. Begira, kalera irten eta sekulakoak botako nituen, ziur. Barruan geratu izan banintz agian ez, eta gaitz erdi. Ni geratu naiz markatuta, nire imintzioekin, iskanbila sortu zalea nintzela eta beste. Baina nire antzeko asko zeuden.

Ze kezka ditu Juan Martinez de Irujok egun? Inguruan dagoen jendartea ikusi eta ze pentsatzen du? Politikak erakartzen zaitu, ez...

Nire iritziak, joerak ditut, eta besteenak errespetatzen ditut, noski. Ez zait publikoki zein diren adieraztea gustatzen, baina Bilduko lagunak ditut, Vox-ekoak ere bai... Hauteskundeak izan ditugula-eta, Espainian utzikeria handiz jokatu dutela esango nuke... Hilabeteetan lortu ezin izan dutena, bi egunetan lortu du-

te orain? Bozkatzera inor ez joatea merezi dute agintari zenbaitek. Seriotasun gutxi ikusten dut, eta arazoak konpontzeko prestutasun eskasa, hori egitea euren lana denean.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin gertatutakoa dabil, bili-bolo, Iruñean. Ze iritzi daukazu?

Ba ez zaidala normala iruditzen egin dutena. Ekitaldiak ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz egin behar badira, ba egin ditzatela, baina euskaraz ere bai, ezta? Ez al da ba *lingua navarrorum*, gure hizkuntza? Euskarak sortzen du, oraindik, halako gorrotoa nafar herritar zenbaitengan, eta ez dut uler-tzen zergatik.

Futboleko bihotza banatua daukazu. Realeko eta Osasunako zalea zara.

Bai, biena. Idatzi parte igual-tan, polemikak saihesteko. Lortu nuen lehen kamiseta Realarena izan zen, izenik agertzen ez zen garaikoa. Horregatik zaletu nintzen. Gero nafarra naiz, eta nola ez izan Osasunakoa, batez ere orain, Jagoba Arrasaterekin, eta taldearen bizkarrezurra etxeko

mutilek osatzen dutenean? Jendea askoz gehiago identifikatzen da etxeko jendearekin, hori da Osasunaren bidea.

Joaten zara Sadarrera?

Neguan gutxi, hotza egiten du-eta.

Ze kirol ikusten duzu telebistan?

Txirrindularitza, baina uztailean, Tourrean, alabek oporrak dituzte, eta beti daukagu igerilekua, beste ekintzaren bat... Futboleko euskal derbiak ere ikusten ditut.

Bi alaba dituzu. Pilotalekura eramaten dituzu?

Jokatzen nuenean ez, ze jende guztia, nirekin ikustean, astun samarra izaten zen beraiekin. Orain bai, orain lasaiago ibiltzen gara.

Zergatik Mutiloagoiti eta ez Ibero?

Ni Iberon gusturago egongo nintzen, baina... Bizitzan dena negoziatu behar da [barrez]. Mutiloagoitin zerbitzu piloa dugu, eta ondo bizi gara, baina ahal dudan guztietan herrira jotzen dut, Ibero eta Bidaurre-tara, amaren herrira. Hura da nire tokia.

Non ikusten zara urte batzuk barru?

Ba ez dakit. Egunean egunekoa bizitzea gustatzen zait. Lagunak Iberon, Etxaurin, toki askotan ditut. Hemen lasai bizi naiz, orain jendeak ez nau kalean une oro geratzen, lehen bezala. Pilotari nintzenean, eta finalen atarian, ezin nuen taberna batera sartu, edo Iruñera paseatzera joan, jendeak geratu egiten ninduelako kaltetik. Aukera izango banu, hauxe aukeratuko nuke: pilotaria, baina egungo lasaitasunarekin.

ireki gure leihoa



GAUR8



Giovanni Cuocci italiar sukaldaria Donostian izan zen azaroan, La Lanterna Di Diogene proiektua azaltzen. Maialen ANDRES | FOKU

infraganti GIOVANNI CUOCCI

Italiako Modenan, bi ibairen artean, bada Mesopotamia bat. Bertatik ez zen munduko zibilizazioa atera, baina bai Lambrusco ardoa... eta La Lanterna Di Diogene etxaldejatetxea. Giovanni Cuocciren eta dibertsitate funtzionala duten bazkideen proiektua Basque Culinary Worldprizeko finalista izendatu zuten. Horregatik, gurean izan da Cuocci.

La Lanterna di Diogene etxaldejatetxearen sortzaile eta bazkidea Donostian izan zen azaroan, Basque Culinary Worldprize sarietako finalista hautatu zutelako Italiako Modenako egi-

tasmoa. Basque Culinary Center egindako bisita «zorgarria» izan zen Cuoccirentzat. 2003an sortu zuen La Lanterna di Diogene etxaldea. «Badakizu, gaztea zarenean mundua aldatu nahi duzu. Eta ez nekien hori nola egin nezakeen. Baina inguruan nuenaz

ardura nintekeen. Pentsatzen hasi nintzen zer egin nezakeen hemen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta nekazaritzako elikagaien industriak hartutako lurraldea zaintzea erabaki nuen», azaldu dio GAUR8ri.

Lurrarekin lanean hasi zen, beraz, ongarria egiteko zizareak erabiliz. «Lurrak bizirik egon behar zuen, landareentzako janari mikroorganiko askorekin. Hala hasi nintzen lanean, jende askorekin». Nekazaritza eskolan ikasi zuen, eta gero Pedagogia egin zuen Unibertsitatean. Sukaldaritza, aldiz, sukaldariekin lanean ikasi zuen. «Beti gustatu izan zait kozinatzea, baina ez da gauza bera etxean edo jate-txean egitea». La Lanterna di Diogene jatetxea sortu aitzine-

tik bertze jatetxe batean ibili zen lanean.

Lehenbiziko urteetan La Lanterna etxalde bat zen. Animaliak zituzten: txerria, oiloak, ahuntzak, ardiak... Baratzeta eta mahastia ere bai, ardoa eta Modenako ozipin tradizionala egiteko, Modena kanpoaldean kokatua baitago proiektua.

«Landutako sailez osatutako ingurua da, hagitz intentsiboa, baxu-baxu dago, itsasoaren mailan. Bi ibai ditugu. Mesopotamiako lurra bezalakoa da gurea. Gure Tigris eta Eufrates El Panaro eta Secchia dira. Bien erdian gaude. Gure Mesopotamiatik ez zen munduko zibilizazioa atera, baina bai Lambrusco ardoa!», agertu du irribarrez.

La Lanternan bizi eta lan egiten zuten lagunak pentsatu



Modenako jatetxearen irudia, eta sukaldariak lanean. LA LANTERNA DI DIOGENE



zuten jende gehiagorekin to-
patzeko etxalde bat baino zer-
bait gehiago behar zutela.
«Jendearekin mintzatzeko to-
kirik onena mahaiaren ingu-
ruan da, ogiarekin, txorizoare-
kin eta ardo kopa batekin.
Hala erabaki genuen onena ja-
tetxe bat zabaltzea zela. Eta
kozinatzen hasi ginen».

TOPAKETA PERFEKTUA

Sukaldea unibertsala da. De-
nok jan behar dugu. Hori ai-
tzakia da jende aunitzez gehia-
gorengana iristeko. «Jendeak
pentsatzen du dibertsitate
funtzionala duten pertsonak
ezin dutela lan egin, ezin dute-
la ezer egin. Beraz, topaketa
perfektua antolatu genuen: di-
bertsitate funtzionala duen
pertsona batek pasta prestatu
eta zerbitzatzen dizu zuri,

‘normala’ zaren pertsona ho-
rri. ‘Tortellini hauek onak dira’,
erranen duzu».

Modu horretan, izan dezake-
gun ideia bati buelta ematen
diote: zuk berari, dibertsitate
funtzionala duen lagun horri,
janaria prestatu eta atera or-
dez, berak egiten dizu zuri.

Cuoccik aipatu duenez,
gehienek ez dute konturatu
nahi janen dutena dibertsitate
funtzionala
duten pertso-
nek egina de-
la, nahiago
dute jatetxe
normala dela
p e n t s a t u .
«Noski, ohar-
tzen dira! Us-
te dut nahia-
go dutela ez
pentsatu».

**Izan dezakegun ideia bati buelta ematen diote
jatetxean: «Zuk berari, dibertsitate funtzionala
duen lagun horri, janaria prestatu eta atera
beharrean, berak egiten dizu zuri»**

**Uda honetan Basque Culinary Worldprize
sarietako finalista izendatu zituztenean,
Italian La Lanterna existitzen zela ohartu
ziren. «Orain denak mintzatzen dira gutaz!»**

Ez dira langileak, kooperati-
ba gastronomiko-sozial bateko
bazkideak baizik. Errotazioan
funtzionatzen dute, hau da, ki-
de guztiek lan guztiak egiten
dituzte txandaka. «Zerbait egi-
ten dutenean zergatik egiten
duten jakitea nahi dugu. Gero,
bakoitzak aukeratzen du zer
egitea nahiago duen. Baina au-
rretik jakin behar dute zertara-
ko balio duen lan bakoitzak

eta nola egi-
ten den». Ha-
la ziklo osoa
ez agutzen
dute, bar-
tzetik eta
animalieta-
tik hasi eta
platereraino.

Jendearen
erreakziora
bueltatuz,

Cuoccik kontatu digu uda ho-
netan Basque Culinary World-
prize sarietako finalista izen-
datu zituztenean Italian La
Lanterna existitzen zela ohar-
tu zirela. «Lehen ez zioten ga-
rrantzi handirik ematen. Baina
uda ondotik aitorten aunitz
jaso ditugu. Alkateak lan ona-
ren ziurtagiri bat eman zigun,
Modenako enbaxadore saria
jaso genuen, sommelier elkar-
te batek ardoaren enbaxadore
izendatu gintuen, Milango
egunkari ospetsu batek egin
zigun aitortza... Hau dena Bas-
que Culinaryko sarien ondo-
tik. Aitzinetik bazirudien ez
zela inor ohartzen egiten ari
ginenaz».

Bitxia da. Dena den, kontentu
daude sariekin. «Mundu guztia
gutaz mintzatzen da orain!»,
diote bazkideek.



Langileak elkarlanean, eta familia argazkia. LA LANTERNA DI DIOGENE

Sukaldariaren ustez, jatetxean emozioak transmititu behar dira eta La Lanternako bazkideak apartak dira horretan. «Mahaian jarritako lagunei kontuak kontatzen dizkiete. Oholtzara igo eta publiko aitzinean solastatzeko lotsati samarrak dira, baina mahai baten bueltan aunitzez hobeki kontatzen ahal dute gure historia. Badelako denbora luzeago bat, bazkaltzeko denbora. Eta dibertsitate funtzionala duten lagunentzat egoera hau ezaguna da, etxekoa, eta topatu, mintzatu eta eztabaida dezakete».

LURRALDEAREN ZAPOREA

Down sindromea, garuneko paralisia, autismoa edo psikosia dituzte La Lanternako bazkideek. Askotarikoak dira eta bertzearekin topo egitea, bere

begietatik ikustea, aberasgarria da.

Modenako sukaldaritza tradizionala egiten dute. «Plater xumeak dira, zapore puruak; gure historia, gure lurraldea kontatzen dute. Gure eskualdeko produktuak erabiltzen ditugu. Txokolatea, banilla eta kafea soilik ekartzen ditugu kanpotik».

Erantsi duenez, tradizioa bilatzen dute, baina ez noster talgiarekin, «ezta pentsatu ere! Non-dik gatozen bilatzen dugu, zein den lurralde honi dagokion zaporea». Adibidez, behia ko-

Sukaldariaren ustez, jatetxean emozioak transmititu behar dira eta La Lanternako bazkideak apartak dira horretan. Mahaian jarritako lagunei kontuak kontatzen dizkiete

«Zerbait gertatzen denean, istiluren bat dagoenean, mahaiaren inguruan esertzen gara solastatzeko. 'Zer gertatu da? Nola? Zergatik? Konpondu agian ez, baina zerbait mugitzen da»



zinatzen dute, bertako tipikoa, eta txerritik «den-dena» baliatzen dute. Gauza bera barazkiekin. «Ez dugu deus botatzen. *No waste* filosofia bogan dago orain, baina gure kulturaren betidanik egiten da. Hagitz dibertigarria da. Ez badugu barazki baten zati bat gustuko, patataren azala kasu, bertze era batera presta dezakegu».

Jakina, La Lanternan arazoak ere badaude, toki guztietan bezala. «Zerbait gertatzen denean, mahaiaren inguruan esertzen gara solastatzeko. 'Zer gertatu da? Nola? Zergatik? Zer-

gatik egin zenuen hori?'. Istiluren bat gertatzen denean, denak gelditzen gara mintzatze-ko». Arazoa konpontzen da horrela? «Konpondu agian ez, baina zerbait mugitzen da».

Cuoccik agertu duenez, lana ez da inoiz amaitzen, beti dago ezusteren bat, arazoren bat. «Baina dugun indar handi bat da pertsonak ez direla inoiz proiektua suntsitzera joanen. Badakite zergatik dauden hemen. Arazoak izan ditzakete, baina inork ez du egitasmoa hondatuko. Familia bat bezala gara». Bertze puntu garrantzitsu bat da La Lanternako lana atsegin dutela. «Denok zoriontsuago izanen ginatke gure buruari zer egin nahi dugun galdetu eta eginen bagenu». •

Maidier Iantzi Goienetxe



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexu segurua balio bat da

Sinestezina badirudi ere, gure gizarteak, beldurra galdu dio hiesari (hartutako immunoeskasiaren sindromea). 80ko hamarkadan heriotza-tasa beldurgarria zuen izurritea izan zen; egun, gaixotasun kroniko bihurtu da. Gaixotasunak organismoan zer egiten zuen eta nola transmititzen zen ez jakitetik, birusak nola jotzen zuen eta gaixotasun ez bilakatzeko tratamendua fabrikatzera iritsi ginen. Eta haratago joan gara. Hala nola, heriotza zigorra izatetik, hiesdunen bizi kalitatea bermatu eta bizi itxaropena luzatzera pasa baikara. Betiere tratamendu egokia betirako jarraituz. Hala ere, estigma handiko auzia da eta sexu bidez transmititzen den gaixotasuna dela sinesten jarraitzen dugu.

Ikuspegi mediku batetik aurrera-pauso handiak eman dira, ikuspegi sexologikotik, berriz, batere ez. Hasiara batean, hiesa, gizon gayen artean izugarri hedatu zen. Gertaera hori ezjakintasun sexualetik interpretatu zen eta osasungintza, arrisku praktikez baino, arrisku populazioaz hitz egiten hasi zen. Izan ere, gaixotasuna, babesik gabeko praktika konkritu batzuekin erlazionatu beharrean, sexu orientazio homosexualarekin identifikatu zuen. Gainera, garai hartan, transexualitatea erabat ezezaguna zen eta homosexualitatearekin nahasten zen. Ondorioz, kolektibo horiengan estigma handia ezarri zen.

Garai batean, gaixotasuna kutsakorra zela uste genuen. Egun, badakigu hiesa GIB (Giza Immunoeskasiaren Birusa) izeneko birusaren bidez transmititzen dela. Baita birusa gaixotasun bihurtzea ekiditeko tratamenduak funtzionatu egiten duela ere. Hots, seropositiboak hiesa garatu gabe bizi ahal direla. Beraz, infekzioa da GIBa eta transmitti-



Hiesaren inguruan ikuspegi medikutik aurrerapausoak eman dira, sexologikotik ez. G. RUBIO / FOKU

tu egiten da, ez da gaixotasuna eta ez da kutsatzen. Bestalde, sexu bidez transmititzen dela hedatuta dago. Baina birusa duen odola beste baten odolarekin kontaktuan egoteagatik edo edoskitzeagatik ere transmititu daiteke. Eta azken horiek, bitan denez, sexu harremanekin ez dute inolako zerikusirik. Hortaz, beste behin, sexua genitalekara murriztu dugu. Horregatik, GIBa sexu bidez transmititzen den infekzio gisa izendatu baino, genitalen bidez transmititzen den infekzio bezala ezagutu beharko genuke.

Laburtuz, sexua kakazten jarraitzen dugunez, gure lana berau purgatzeta da. Horretarako lanabesa sexu heziketa dugu. Arrisku praktikez eta berauez babesteko moduez hitz egiteaz gain, praktika seguruei buruz ere jardutea. Ugalketara bideratuta ez dauden praktikak kultibatu

eta negoziaketarako gaitasunak lantzea, alegia. Funtsean, sexu harremanak desgenitalizatu eta deskointalizatu. Azken batean, gehienetan, sexu harremanak ditugunean, helburua ez baita ugalketa. Sarketa egin gabe eta genitalak erabili gabe ere gozatu dezakegu. Eta soilik ugalketa saihesten saiatzen bagara, ezingo dugu infekzioen transmisioa ekidin. Infekzioak saihesten baditugu, ordea, ugalketa ere ez da emango.

Bukatzeko, GIBari aurre egiteko, sexua kultibatu beharreko balio gisa ulertzea funtsezkoa da eta ez prebenitu beharreko arrisku bezala. Azken finean, prebenitu beharrekoak edota babesarekin egin beharrekoak, arrisku praktikak baitira. Praktika seguruak bultzatzea, ordea, infekziorik gabeko bizitzak aldarrikatzea ere bada. Baita gozamina bermatzea eta mapa erotikoak zabaltzea ere. Hots, sexu segurua balio bat da. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



CHE EBROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN ARGAZKI FUNTSA

ALLOZKO PRESA ERAKITZEN

Irudia, argazki estereoskopiko baten parte dena, 1929ko apirilean egina da eta bertan Allozko presa eraikitze lanak ageri dira, Riosalado ibaiaren gainean, Deierin, Lizarrako merindadean. Fuerzas Eléctricas de Navarra enpresa 1924an hasi zen presa eraikitzen, energia elektrikoa ekoizteko. Behin bukatuta, Aragoiko eta Lodosako kanalen premiak asetzeko ere erabili zuten. Argazkia Manuel Lorenzo Pardo ingeniari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren fundatzailearen enkargua izan zen. Zehazki, Konfederazio Hidrografiko-ko Zerbitzu Grafikoak egin zuen. Zerbitzuaren arduraduna Juan Mora Insa argazkilaria zen, baina ez dago garbi irudia berea den, garai hartan Aurelio Calvok ere lan egiten baitzuen argazkilari gisa Zerbitzu Grafikoan. Argazki hau eta beste batzuk Konfederazio Hidrografikoak egindako lan guztien irudi estereoskopikoen bilduma bat prestatzeko egin zituzten.

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



Jordan Trail

Jordaniako oinezko zeharkaldia

650 kilometro, 40 egun eta 52 herri, Wadi Rum basamortuan hasi, planetako puntu baxueneraino jaitsi eta iparralde menditsurantz jarraiturik. Hauxe da Jordan Trail ibilbide kitzikagarria.

- Eta gainera:** Irlandako mendebaldeko itsaslaba • Jekaterinburgoko ibilbide gorria
• Zeelanda Berriko azken tontorreko badia ezkutuak • El Altoko «tenplu» aimarak...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

